

**Herririk Herri** |4|

Dantzari Egunak herriko 120 dantzari batuko ditu, domekan, Garain

**Ekonomia** |10|

Gehiengo sindikalak dekalogoaren aldeko sinadura bilketa abiatu dau



**Berbaz** |9|

Hegoi Escudero: "Baserriak etorkizuna daukela pentsatzen dogu"

## Orain 14 urte atzera botatako trazatua hartu dabe Atxondon

- > AHTaren lehenengo proiektua, herrigunetik gertu doana, bidali deuto ADIFek Atxondoko Udalari.
- > Halan be, "hurrengo proiektuko desjabetzekin jarraitzen dabela" salatu dau Gobernu Taldeak.

3



Iban Gorriti

'Agurrik gabeak' gogora ekarriko ditue, gaur, Plateruenean

**Durango** • Durango 1936 kultur elkarteak "askatasunaren, justiziaren eta nazino eskubideen alde" bizia emon eben borrokalariai omenduko ditu gaur, 20:00etan, Plateruenean. Olmako tximinian aureskua eta lore-eskaintza egiteaz gainera, Juanjo López zuzendariaren *Durango, oroimenaren gogoan* dokumentala aurkeztuko dabe. 2

### Anari, Urdangarin, Murugarren eta Petti Platerueneko Kantuaren Kantoian

**KULTURA** • Urriaren 29an, Anari musikari azkoitiarraren emanaldiak abiatuko dau Durangoko Plateruenean lehenengoz antolatu daben Kantuaren Kantoia: lau euskal musikarigaz "berbaldi musikatuak" gidatuko ditu Juanan Hernandez kazetari durangarrak urri eta azaroko lau eguenetan.

12-13



Zapatutik domekara  
**ORDU ALDAKETA**  
03:00etan 02:00ak  
izango dira

• **Abadiño**

Jubilatuaren elkarten eta Gaztetxearen urteurrenak

6

• **Elorrio**

Frontoia estaltzeko proiektu egokirik ez dabe topatu

7

• **Otxandio**

Etxebizitza-preminak ezagutzeko inkesta egingo dabe

4

• **Berriz**

Haurreskolaren gabezien gaineko batzarra

4



# HERRIRIK HERRI >

**DURANGO**

## Oroimena zaindu eben hareek gogoan hartuz, 'Agurrik gabeak' omenduko ditue

'Durango, oroimenaren gogoan' dokumentala aurkeztuko dau Durango 1936 kultur elkarteak

gaz hasitako bideari eutsiz, omenaldia egingo deutse Durango 1936 kultur elkarteak, gaur, "askatasunaren, justiziaren eta nazino eskubideen alde" bizia emon eben borrokalari: 'Agurrik gabeak' gogoratuko ditue, 20:00etan, Plateruenean. Durangoko Ordena Publikoko kide Juan Eskubi (ELASTV) Larrinagako (Bilbo) kartzelatik atera eta Derioko hilerrian fusilatu eben 1938ko urriaren 24an. Hori gogoan hartuta jaio zen 2. aldia daukan 'Agurrik gabeak' borrokalari antifaxistei omenaldia. Aurten oroimena zaindu ebenak hartuko ditue gogoan, bereziki.

Olmako tximinian aureskua eta lore eskaintza egingo ditue, eta kantaldia eskainiko dau Fermin Balentziak Plateruenean. Aurretik, baina, Juanjo Lópezek zuzendutako *Durango, oroimenaren gogoan* dokumentala, euskaraz eta gazteleraz editatua, erakutsiko dabe. Durango 1936k ekoiztutakoari—50 kopia egin ditue, eta protagonisten artean banatu—, Ander Ertzillak jarri deutso musika, eta Iñigo Camarero izan da argazki-

arduraduna. Batutako izenei "bizitza emon" gura deutsee, testigantzak jasoz.

### "Egiaren mesedetan"

"Errepresaliatuen testigantzari forma emon" eta Gerra Zibilari buruz informazioa zabaltzea dabe helburu; "Egiaren mesedetan", Durango 1936koen berbatan: "Frontean, kartzelan, fusilatuak, desagertuak... ehundik gora durangar izan ziren, eta Nafarroako Pirinioetan bakarrik eskualdeko 37 esklabu zegoen". Aranzadi Zientzia Elkarteagaz alkarlanean, artxiboa osatzen be badabilz, testigantzekin. ■ A.B.

**'Durango, oroimenaren gogoan' dokumentala aurkeztuko dabe Plateruena kafe antzokian**

**Olmako tximinian aureskua eta lore-eskaintza egingo ditue, 20:00etan**



Igaz legez, Olmako tximiniaren alboan aureskua eta lore-sorta eskainiko ditue. J. Fernandez

## "Isilean gordetako oroimena kontatu deusku zenbait protagonistak"



Gertuko errealitatea kontatzen dau *Durango, oroimenaren gogoan* dokumentalak, Juanjo López zuzendariaren berbatan, Durangotik ikusita: "Zenbait protagonistak isilean gordetako oroimena". Horretara, "barrura begiratzeko" lana da. Kontakizun belikoa hor dago, baina "bizitakoaren eta sentitutakoaren oroimena islatu" gura izan dau. "Umeen begietatik gerra kontatzen daben adinekoak" dira protagonistak, eta ez dau pertsonalizatu.

Lan handia ekarri dau testigantzak jasotzeko, dinonez: 19 lagun elkarrizketatu ditue eta "20 orduetatik segundu

gitxi batzuk jaso dira". Protagonistek, gainera, "freskotasuna eta naturaltasuna" emon deutsie. Estatu-kolpearen aurreko bizimodua, gerra eta gerraondoa batu ditu, "amaiera zabalikitziz: dramak oraindino badirau-eta".

*Iurretan askatu, Anboto, sortaldeko bakardadean edo Elorrio, lehenaldiak* lanak besortu dituenak, "demokrazia ezzela 1975ean asmatu ikusi eragin gura" dau: "Gerra Zibilak dena apurtu eta oraindino bizi den tragedia hasi". Baliabide eskasekin "lan duina" egin dela deritzo, Bideo-grafiken laguntza be eskertu gura izan dauenak.

## Intxaurrondo kalea itxi egingo dabe martitzenean

Urriaren 27tik abenduaren 24a bitartean itxiko dabe, ur-hornidura eta saneamendu lanengaitik

Ur hornidura eta saneamendu hoditeriak barritzeko lanen eraginez itxi egingo dabe Intxaurrondo kalea; Balbino Garitaonandia plazaren eta Laubideta kalearen arteko zatian. Urriaren 27tik abenduaren 24ra (biak barne) egongo da itxita, udal arduradunek jakin eragin dabenez. Horretara, Balbino Garitaonandiatik Alde Zaharrera sartzeko, San Frantzisko kaletik jaitsi eta kontrako norabidea hartu beharko dabe gidariak, lanak amaitu arte ezingo dabe Laubidetatik sartu-eta.

Bestalde, garaje kaltetuetako administratzaileek, denpora tar-

te horretan, TAOaren 1 gunean aparkatzeko txartel berezia izango dabe, TAOaren bulegoan (Txaixiena kalean) bertan kaltetutako auto-marka eta matrikula zerrenda aurkeztu ondoren. Gaineratu dabenez, kalearen zati hori asteburuetan bakarrik zabalduko dabe, kaltetutako garajeetara sartzeko; San Frantzisko kaletik sartuko dira horreek be. ■ A.B.

**Asteburuetan bakarrik zabalduko dabe, kaltetutako garaje jabeengaitik**



# Santa Anako arrastoak estaltzea salatu dau PSE-EEK

Webgunean jasotako eritzi gehienak indusketen zati bat agerian iztearen aldekoak direla dinoe

Hirigintza Batzordeak Santa Anako arrasto arkeologikoak estaltzea erabaki izana ez dabe begioz hartu sozialistek. Salatu dabeenez, Udalen webgunearen bitartez jasotako zortzi eritziatik zazpi indusketen zati bat agerian iztekoaren aldekoak izan dira, "herritarrek urriaren ondare historikoari probetxua ateratzeko edo erakargarri turistiko lez". Jaki-tera emon dabenez, sozialistek bakarrik egin eben kontra. EAJ, PP eta Talde Mistoa agertuz ziren alde. Aralar abstenitu egin zen eta EB-Berdein zinegotzia ez zegoen.

**PSE-EE: "EAJk zergaitik egin dau kontsulta, eritziari kasu egiten ez badeutse?"**

PSE-EEK galdetu dau zergaitik egin deuten kontsulta herritarrei EAJk, "eritziari kasu egiten ez badeutse". Aurretik, Hirigintza Batzordean aurreikusi ziren hainbat ekarpen egin ei dira: "dokumentazino zehatza lantzea argitalpen espezializatu batez,

dibulgazino beste batez; Santa Anan, indusketei buruzko informazino puntua jartzea; ubidea garbitzea...". Sozialistek Erdi Aroko harresiaren zati bat —Santa Ana arkuaren albokoa— agerian iztea defendatu dabe: "Holan, plazaren erabilera ez litzake kalteko eta Santa Anako ohiko ekintzekin jarraitzea legoke".

## Lanak gelditu barik

Espaniako Gobernu Tokiko Inbertsinoen Estatu Fondon bitartez barriztatuko dabe Santa Ana plaza, eta arrastoak agerian itziz lanak gelditu ez eta epean amaitzeko aukera emon dabela dino PSE-EEK, lotutako aurrekontuagaz. "Zati hori beste epe eta aurrekontu batez amaituko litzake. Azterketa egin eta metakrilatoz estali edo agerian itzi zeiteken, arkeologo eta arkitektuen gomendioen arabera". ■ A. B.

## Lanak epe barruan eta bere aurrekontuagaz amaitzeko aukera bazegoela dinoe

# Ekitaldi barrien arrakasta azpimarratu dau Udalak

Datorren urtean be txupinazoa zapatuan botatzea hausnartuko dabela adierazi dabe

Sanfaustoetako balorazino egin dau Durangoko Udalak. Oro har, "oso balorazino positiboa" egin dabe. Nodedadei jagokenez, aurtentzako jaiei hasiera emoten deuten txupinazoa zapatuan bota dabe —krisiari aurre egiteko neurrien barruan— eta "jaietako ekintzarik jentetsuenetakoa" izan denez, datorren urtean "berriro zapatuan egitea" hausnartuko dabela adierazi dau Aitziber Irigoras alkateak.

Gainerakoan, ekintza barriek oro har izandako harrera ona azpimarratu dabe. Gaztetxoei zuzendutako Moltó motorren kontzentrazinoan 350 motor batu ei ziren.

Musika kontzertuei jagokenez, El Sueño de Morfeok 3.500 lagun batu zituen, eta musika elektronikoi eskainitako jaialdiak 2.000 lagun inguru.

Aurtentzako ez dabe entzierro txikia antolatu "jai antolakuntzatik kanpoko arrazoiengaitik", baina "beste noizbait" antolatzen saiatuko dira.

Udalzaingoak 49 denuntzia jaso ditu: horreetako 25 karterak eta mugikorak ostu izanagaitik jarritakoak. Bestalde, 7 kontenedore eta 6 zakarrentzi erre ditue jaietan; horreek barriztatzeak 12.000 euro eroango ditu. ■ J.D.

## Gaztetxoei zuzendutako Moltó motorren kontzentrazinoak 350 motor batu zituen

## Udalzaingoak 49 denuntzia jaso ditu; 25 karteren eta mugikorren lapurretageitiki

## ATXONDO

# Orain 14 urte alboratu eben trazatua Oinarrizko Egitasmo

Urri hasieran jaso dabe Udalan AHTaren Oinarrizko Egitasmoa; herrian eragingo leuken kalteagaitik alboratua izan zen ibilbidea jasotzen dau



Herriko plazatik 100 m baino gitxiagora igaroko litzake AHTaren zubia egitasmoaren arabera. K.A.

Gobernu Taldeak udalbatzarrean erabaki eban, eguaztenez, urri hasieran Udalan jaso daben AHTaren Abadiño-Atxondo tartearan trazatuari buruzko mozino. Urri hasieran jaso daben Oinarrizko Egitasmo bertan behera izteko eskatu dau Gobernu Taldeak bertan.

Ezker abertzaleko ordezkarien aldeko bozkagaz onartu eben mozino, eta kontra bozkatu eben jeltzaleek. "Gobernu Taldeak idatzitako testuagaz ezin dogu bat egin", azaldu eban Buruaga zinegotzi jeltzaleak, nahiz eta ez dagozen ados 90 metro altu eta 1.700 luze izango den zubia herritik oso gertu igarotzea suposatzen dauen proiektuagaz. Udalan proposa-

tutako mozinoa Jaurlaritzan jasotzen dabenean, han zer egingo daben galdetu, eta "zakarretara botako dabe", erantzun eutsan Buruagak bere galderari.

## Herritik oso gertu 90 metro altu eta 1.700 metro luzeko zubi bat jasotzen dau Oinarrizko Egitasmo horrek

Cobos alkateak nabarmendu eban, "orain hainbat urte Atxondo, Elorrio eta Abadiño udalek, azterketa teknikoetan oinarrituta, herrian kalte txikiagoa eragingo leuken ibilbidea proposatu eben, eta Eusko Jaurlaritzako Garraio

Sailak ontzat emon eban". Orduan, hasierako proiektuaren eta udal proposatutakoaren tarteko ibilbidea igerilekuaren ostetik doana onartu eban trenbide azpiegituren ADIF erakundeak; lurjabeak ibilbide horretako desjabetza agiriak sinatzera deituak zegoen atzo goizean Bilbon.

Urriaren Udaletxean jasotako Oinarrizko Egitasmoan bestelako trazatua agertu denean, —orain 14 urte azterketa teknikoek herritarren bizi kalitatean eragingo leuken kalteagaitik alboratutako abigarren proiektuaren desjabetza prozesuagaz aurrera jarraitzeak "proiektu osoaren zentzugabeberria" adierazten dauela uste dau Gobernu Taldeak.

## IURRETA

# Hilerrian argiteria barria jarriko dau Udalak

Hilerria handituko daben zatian jarriko dabe argiteria, 137.000 euroko inbertsinoa eginez

Hilerria handituko daben zatian argiteria barria jartzeko 137.000 euro inguruko inbertsinoa egingo dabe. Udalbatzarak horretarako kreditu transferentzia egitea

eta lanak azaroaren erdialdean hastea aurreikusi dabe, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbatan.

Maiatzean hasi zitueen hilerria handituko daben 2. faseko

lanak —200 nitxo inguru batuko ditue—, eta, Domu Santurako prest izatea gura eben arren, urte amaiera arte ez dela posible izango onartu dau Totorikaguena. Argiteria barria be ordurako pen-tsatzan dabe jarrita egotea, gaineratu dabenez. ■ A.B.

## Hilerria handituko daben lanak urte amaiera arte ezin izango ditue amaitu

**CENTRAL FORESTAL**

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa 48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187 Faxa: 946 205 194

BERRIZ

# Haurreskolan zer neurri hartu erabakitzeko batzartu dira

Udal arduradunak, beiratea ipini dauen enpresa, enpresa eraikitzailea eta teknikoak batu dira

**H**aurreskolako gabezien gainean berba egiteko, baina, batez be, hotz-bero kontraste handiegia arazoari aurre zelan egin erabakitzeko batzartu ziren udal arduradunak, beiratea ipini dauen enpresa, enpresa eraikitzailea, obrako zuzendaria eta udaletxeko teknikariak joan zen aste amaieran. Han erabakitakoaren arabera, egoera baloratzen hasi dira: zer egin, erabakitakoa gauzatzeko zenbat denpora behar-ko litzatekeen aztertu, eta zer aurrekontu izango leuken. Berririo ahal

bezain laster batzeko asmoa daukie, baina "gauzak ez doguz arrapaladan egin gura", zehaztu dau Jabier Azpitarte alkateak: "Badakiguzenbat eta arinago egin hobeto dela, baina ez dogu presaka ibili behar; erabaki zuzenak hartu gura doguz, eta horretarako dena behar den moduan aztertu beharra dago".

Alternatibak hainbat izan daitezke, baina oinarri batetik abiatuta. Eraikina kanpoko argia eta berotasuna aprobetxatzeko diseinatuta dago, eta, beraz, aldagarri hori aintzat hartzea ezinbestekoa da: "Behar bada klimatizagailua ipiniko dogu, baina, jasangarritasunaren aldetik, ez doguna gura da arazoa konpontzeko sistema bakarra hori izatea".

**Hezitzaileekin batzarra**

Bestalde, oraindino eguna eta ordua zehaztu barik dagozen arren, datorren astean haurreskolako hezitzaileekin eta Haurreskolako Partzuergoko ordezkariekin batzartzen saiatuko dira udal ordezkariak. ■ J.D.

**J. Azpitarte: "Arazoa zenbat eta arinago konpondu, hobeto, baina horrek ez dau esan gura arrapaladan ibili behar denik"**

**Udala hezitzaileekin eta Haurreskolako Partzuergoagaz batzartzen saiatuko da datorren astean**

GARAI



Herriko jaietan legez bihar be kalejira egingo dabe dantzariak eguerdiko 12:00etan.

## 120 herritarrek hartuko dabe parte Dantzari Egunean

Dantza saioa, omenaldia eta bazkaria antolatu ditue lehen edizinorako

Dantza izango da bihar protagonista Garain, herriko I. Dantzari Eguna antolatuko dabe-eta. Tartean, 60 urtetik gorako 12 dantzari parte hartuko dabe saioan,

eta omenaldia jasoko dabe herritarren aurrean.

Goizeko 11:30ean hasiko da egitaraua. Dantzari guztiak eliza ondoan elkartuko dira, eta, behin prestaketak eginda, kalejira joango dira plazaraino. Eguerdiko 12:00etan izango da hori. Ondoren, eguneko zita nagusiaren txanda etorriko da: *Dantzari dantza*. Lehenengo, mutilek osatutako 8 taldek egingo dabe, gero neskek osatutako 6 taldek, eta, azkenik, umeen taldeak: guztira, 120 herritar. Aipatutako omenaldia buru-

tuko da jarraian, eta dantza saioa *Erregelekin* amaituko da. 14:30ean, 250 lagunetik gora elkartuko dira frontoian bazkaltzeko, eta ostekoa Ansozregi taldeak girotuko dau.

Udalak argitu dauenez, plaza inguru itxita egongo da 12:00etatik 14:00etara. ■ M.O.

**250 lagunetik gora elkartuko dira frontoian bazkaltzeko, eta ostekoa Ansozregi taldeak girotuko dau**

**UDA GOIENENKO OSTERA 2009 10 URTE**

**LOR + ERASO! AURRESTREINALDIA**

**ZORNOTZA ZELAIETA ZENTROA**  
Urriaren 30ean, barikua, 22:00etan  
Sarrera: aurretik 6€, bertan 8€

OTXANDIO

## Etxebizitza-preminak ezagutzeko inkesta

Herriko etxebizitza beharren inkestagaz batera, alokairuko etxebizitzaren errolda egingo dau Udalak

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) aurten jarriko dabeenez indarrean, babes ofizialeko etxebizitzak garatzen hasi aurretik hurrengo lau urteotan egon lei-

**Errentan emoteko etxebizitzaren zerrenda ahalik eta eguneratuena izan daiten gura dau Udalak**

tekezen preminak ezagutu gura ditu Udalak. Behar hori ezagutzeko inkesta banatuko dabe, laster, Guzurmaiko aldizkariagaz batera. Herritarrek orria bete eta Uda-

letxera eroan beharko dabe. Galdegi horregaz alokairuan dagozen etxebizitzaren errolda be egin gura dabe. Udalaradunek jakitera emon dabenez, jente asko joaten da Udaletxera alokairuan dagozen etxebizitzaren gaineko informazio eske. "Errentan emoteko etxeen zerrenda eguneratuz gero, Udalak bitartekari lana egin ahalko leuke, errentan hartu gura dauena eta etxearen jabea hartu-emonean jarritz", azaldu dabe udal arduradunak. "Eskertuko geunke etxea errentan emondako herritarrek be inkesta betetzea, zerrenda osatuena egin daigun". ■ J.G.

# urriko jaiak 09

## MALLABIA



### URRIAK 30, BARIKUA

- 17:30ean: Nesken pala partiduak frontoian.
- 19:00etan: Txupinazoa
- 19:00etan: ALEX TXIKON. Orraitio Euskara Elkarteak antolatuta ikus-entzunezkoa.
- 21:30ean: Pilota partiduak frontoian: Diario Vasco Torneoa  
 Onsalo-Aldape    Olaetxea-Pazos  
 Armendariz-Gorrotxategi                          Mendinueta-Aretxabaleta
- 23:00etan: BIDE BATEZ taldearekin erromeria (plazan)

### URRIAK 31, ZAPATUA

- 11:00etan: Eskolarteko futbitoak: Mallabia - Zaldibar, eskolako frontoian. A.D. Mallabia Futbol taldea.
- 12:00etan: Emakumezko Saskibaloia Eskola, eskolako frontoian. A.D. Mallabia Futbol taldea.
- 16:30ean: Mus, Tute, Briska eta Asto txapelketa tabernetan  
 Sariak: 1.- 80euro  
 2.- 50euro
- 17:00etan: Kiki eta Moko pailazoak frontoian.
- 22:00etan: Rock Kontzertua:



- 05:00etan: Txorizo pintxoak, elkartean.

### AZAROAK 1, IGANDEA

- 14:30ean: Tortilla patata txapelketa, plazan  
 Sariak: 1.- 100euro  
 2.- 50euro
- 17:00ean: Balkoitik balkoira bertso saioa Arkaitz Estiballes, Xabier Paya eta Etxahun Lekue (plazan)

Jaiak amaitzeko txapliguak



## ABADIÑO

# Herriko jubilatuen elkarte biek 25. urteurrena ospatuko dabe

1984an sortu zituen Zelaieta eta Traña-Matienako jubilatuen San Trokaz eta San Prudentzio elkarteak

**T**raña-Matiena eta Zelaieta auzoetan 1984an martxan jarri ziren jubilatuen elkarteak 25. urteurrenak ospatzeko Traña-Matienako San Prudentzio

**Herri Maite soinu taldearen emanaldia antolatu dabe urriaren 23rako Matienan**

eta Zelaietako San Trokaz jubilatuen elkarteek antolatu dituen ekitaldi sortaren barri emon dabe Errota kultur etxeko asteleheneko aurkezpenean.

Elkarte bakoitxeko bina ordezkari eta Udal Gobernuko Jose Luis Navarro alkateak eta Marisa Vázquez kultura zinegotziak aurkeztu ditue ekitaldiak.

Zelaieta eta Traña-Matiena auzoetako elkarte biek mende laurden bete daberen honen amaierarako, urriaren 21etik 24ra arteko egitaraua antolatu dau San Prudentzio elkarteak Matienako Nagusien Etxean. Besteak beste, Herri Maite akordeoi taldearen emanaldia antolatu dabe: urriaren 23an, Errota kultur etxean izango da emanaldia.

**Zelaietako jubilatuen elkarteak 245 lagun dagoz; 538 kide ditu, bestetik, Traña-Matienako elkarteak**

Zelaietan, bestalde, azaroan zehar izango dira Jubilatuen Elkartearen urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Tartean, nabarmentzekoak dira Abadiñoko Done Zezili abesbatzaren eta Andeka Gorrotxategi tenorearen eta Josu Okiñena piano-jotzailearen azaroaren 24ko emanaldiak.

**Omenaldiak**

Mende laurdenaren ospakizunen artean, elkartearen zein Udalaren partetik omenaldia jasoko dabe elkarteetako kide nagusienek zein elkarteetako hasierako sasoiko batzordeetako kide izandakoek.

Zelaietako eta Traña-Matienako elkarteetako kideak 245 eta 538 herritar batzen ditue, hurrenez hurren-ospakizunerako elkarteetako egitaraua osatu dabe urri eta azaro amaierarako, Matiena eta Zelaieta auzoetan. ■ I.E.



Elkarte bakoitxeko bina kide eta Udaleko ordezkariak izan dira Errotako aurkezpenean. I.E.

## Gaztetxearen 11. urteurrena ospatuko dabe Zelaietan gaur, bihar eta domekan

Orain 11 urte, urriaren 23 batean, okupatu eben gaur egungo eraikina

Gaztetxeak hamaika urte gaur, urriaren 23an, betetzen dituela eta asteburua ate joka dagoela aprobetxatuta, denetariko ekitaldiak antolatu ditue astebururako. Nabarmena izango da egunotan, Zelaietan, Gaztetxeak 11 urte betezen dituela. Gustu guztiak asetzeko proposak izan leitekezen ekitaldiak antolatu ditue.

Umeentzako antzerkiak eta dantzarien kalejirak abiatuko dabe gaur arratsaldean urteurreneko programazinoa, eta luntxa izango da hurreratzen diren guz-

tientzat, 19:30ean Gaztetxean. El Tenderete taldearen *Hamaika gatazka* txotxongilo emanaldia izango da horren ondoren.

Bihar da, baina, Gaztetxearen 11. urteurreneko ospakizun egun nagusia, eta 10:00etan abia-

**Mallacan, P.K.U. eta Trikihots taldeen kontzertua izango da bihar gauean, eta askotariko ekitaldiak egunean zehar**

tuko dabe: bizikleta martxa egingo dabe auzoetan zehar. Eguerdian, herri-bazkaria-baba-jana izango dabe 5 euroko txartelaren truke, eta herriko Banarte taldearen bakarrizketa saioak izango dira, 16:30ean. Gauez, Mallacan, P.K.U. eta Trikihots taldeek kontzertua eskainiko dabe Gaztetxearen urteurreneko jaietan.

Domekarako, urteurrenerako ekitaldiak amaitutzat emoteko, *Soofing* antzezlan, txokolata eta su artifizialak antolatu ditue Gaztetxeako kideek. ■ I.E.



Igaz, hamargarren urteurrenean egindako argazkia. J.F.

**GALDERA:**

Zelan deitzen da "Agurrik gabeak" ekimenean aurkeztuko den dokumentala?

Izena: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_

Makatzeta jabetzerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo asketaria@anboto.org helbideetara, Hirilaren azken alean agertuko da irabazlea.





ELORRIO

# Frontoia estaltzeko ez dabe proposamen egokirik aurkitu

Epaimahaiak saria emon barik itzi dau, baina accesit bi banatu ditu

**F**rontoia estaltzeko Udalak antolatutako ideia lehiaketak zortzi finalista izan ditu. Epaimahaiak aztertu ditu lan horreek, eta emon dau bere eritzia: "Proposamenak aberatsak diren arren, frontoiak eta bere inguruak ezagarrri bereziak daukaz, eta batek be ez dau lortu horreei guk egoki deritzogun irtenbidea emotetik; beraz, lehiaketa emon barik iztea erabagi dogu".

Halan be, epaimahaiaren ustez, "besteen gainetik" nabarmentzen diren lan bi dagoz eta euren emon deusez accesit bana (2.500 euro). Proposamen bat Ruben Alcolea eta Jorge Tárrago

**N. Moreno: "Orain geuk erabaki behar dogu asmoagaz aurrera segitu ala ez; baina zer modutara egin be"**

**Zortzi lan finalistak Iturrin ikusgai egon dira, eta 521 herritarrek euren eritzia emon dabe proposamenen gainean**

arkitektoek aurkeztu dabe; bestea Bat Spain Arquitectura S.L. enpresak. Orain Hirigintza Batzordeari jagoko hurrengo pausua emotea: "Guk erabaki behar dogu asmoagaz aurrera segitu ala ez, eta accesita lortutakoekin egin edo beste alternatiba bat bilatu", azaldu dau Niko Moreno alkateak.

Zortzi finalisten lanak Iturrin erakutsi ditue, eta 521 herritarrek emon dabe eritzia. Datu kurioso bat: botorik gehien jaso ditueen bi lanak ez datoz bat epaimahaiak aukeratutakoekin. Bestalde, 20 boto kritiko agertu dira frontoia estaltzeko asmoagaz, ez dabela-ko beharrik ikusten. ■ J.D.



Lehiaketako epaimahaiak lan bi nabarmendu ditu beste guztien gainetik. J.Derteano

# XX. Mikologia Erakusketa egingo dabe, etzi, kiroldegian

Bihar jasotako perretxikoak erakutsiko ditue domeka eguerditik aurrera

Elorrioko Iturritzoroko elkartearteak eta Atxondoko Mikologia Taldeak urtero antolatzen daben mikologia erakusketa 20. aldia beteko dau aurtan. Babesle ditue Elorrioko zein Atxondoko udalak. Erakusketa etzi eguerdian zabalduko dabe Elorrioko kiroldegian. Mota askotako perretxikoak erakustez gainera, dastatzeko aukera be eskainiko dabe bertan.

Baina erakusketa antolatuko badabe, lehenengo eta behin perretxikoak batu egin behar ditue. Horretarako, bihar autobusa hartu eta Oletara joango dira; hango

inguruetan perretxiko bila ibiliko dira. Elorriko 08:00etan ipini dabe hitzordua; autobusak Ferialekutik urtengo dau. Atxondon, barriz, frontoi ondoan geratuko da autobusa, 08:15ean. Elkarte bietako kideek perretxikotan ibiltzea gusatzatzen jaken zaleei gonbita luzatu deusez.

Goiza Oletan emon ondoren, arratsaldean jasotako perretxikoak sailkatuko ditue Atxondo Mikologia Taldeko kideek, kiroldegian bertan. Horrela, erakusketa ikustera doazenek perretxikoen datu zehatzak izango ditue. ■ J.D.

**Bihar Oletara joango dira perretxikoak batzera. Elorriko 08:00etan irtengo dau autobusak; Atxondon 08:15ean**

**Atxondo Mikologia Taldeko kideek perretxikoak sailkatuko ditue bihar arratsaldean zehar**

# Azaroaren 2tik aurrera ONA txartela tramitatzeko aukera eskainiko dabe

Udaletxean eta Iturrin egin ahalko dira gestinoak; jubilatuek datorren astean eskatu leikie txartela

Azaroaren 2tik aurrera ONA txartela atera ahalko da herrian: txartelak orokorrean eskaintzen dituen aukera guztiez gainera, Udalak berak zerbitzu batzuk gehituko deusaz.

**Jubilatuei ONA txartelaren funtzionamendua azaltzeko hitzaldia antolatu dabe martitzenean Iturrin**

Udaletxean astelehenetik ostiralera eskatu ahalko da, 09:00etatik 14:00etara. Iturri kultur etxeko astegunetako ordutegia 09:00etatik 21:00etara da; zapatuetan 09:30etik 14:00etara.

Jakinarazo dabenez, datorren martitzenean, 19:00etan, jubilatuei zuzendutako hitzaldia

dago Iturrin. Berbaldean ONA txartelari buruzko xehetasunak emongo ditue. Horregaz batera, jubilatuek dastatzeko berezia egingo dabe datorren astean: eguaztenean, eguenean eta bari- kuan egin ahalko ditue gestinoak Iturrin, 16:00etatik 20:00etara.

ONA txartelaren bitartez liburutegiko gestinoak egin leitekez eta Osakidetza hitzordua online hartu. Horrez gainera, Aldundian errenta aitortpena egiteko eta Estatuko Administrazioan gidatzeko baimeneko puntuak kontsultatzeko erabili leiteke.

Udala kiroldegiko txartela ONAgaz lotzeko asmotan dabil; autoen sartu-irtena erregulatzen daben piboteak be txartel horregaz kontrolatuko litzatekez. Aukerak aztertzen dabilz eta oraindino ez dabe ezer zehaztu. ■ J.D.

ZALDIBAR

# Bake epailea aukeratzeko prozesua abiatu dabe

Lau urtean behin aukeratzeko dau Udalak bake epailea eta bere ordezkio izango litzatekena

Herriko bake epailea eta bake epailearen ordezkioa aukeratzeko lau urterik behingo hautaketa prozesuari ekin deusie Udalean. Bake epailea hautatzeko espedienteari hasiera emon deusie.

Udalaren webgunean eskuragarri dago, dagoeneko, eskaria egin gura dabenek bete behar-ko inprimakia, eta urriaren 30era arteko epea izango dabe interesa daukien herritarrek eskariorria bete eta Udaletxeko bulegora helarazteko.

Lan eskaintzari buruzko informazio gehiago jasotzeko eta hautagaitza prozesuan sartu ahal izateko bete behar-ko eskariorria be jo leikie interesa daukien herritarrek, 08:30etik 15:00etara arteko ordutegian. ■ I.E.

**Urriaren 30era arteko epea zabaldu dabe hautagaitza aurkeztu ahal izateko**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

▣ MALLABIA

# Eskolan eta auzo-bideetan eguzki-plakak ipini ditue

Agenda 21eko energia barriztagarrien erabilpenerako plana martxan da

**H**erri-eskolan panel fotobol-taikoak jartzen dihardue. Jarri den azkena 30 moduluz osatuta dago, bakoitza 180 Wkoa. "5KW potentzia dauka, ez da

**Orain arte egin daben inbertsinoa 160.000 eurokoa izan dela azaldu dabe**

asko, baina urtean 5300Wh sortuko dau, eta energia garbi horrek 2.400 kg CO2 gitxiago isuriko dau airera", dinoe arduradunek.

Lan horreek Agenda 21eko energia berriztagarrien erabilpenerako azterketaren osteko erabakiak dira. Igaz, eskolako aldagelak eraiki zitueenean, ur beroa eguzki-plakekin lortzeko moduan eraiki zitueen. Inbertsino garrantzitsuenaz azken urte bietan auzo-bideetan jarritako eguzki-plakekin argia

**Igaz, eskolako aldagelak eraiki zitueenean, ur beroa eguzki plakekin lortzeko moduan eraiki zitueen**

**Azken bi urteotan egindako inbertsino garrantzitsuenaz da auzo-bideetan hirurogeita sei eguzki-plaka ipintzea izan da**

sortzen daben farolak jartzea da. Autobus geltokia, auzoetako bidegurutzeak eta bestelako zerbitzuak dagozen auzo-bideetan ipini ditue. Erabiltzaileen segurtasuna zaintzeko, leku estrategikoetan jarri ditue. Guztira, 66 farola ipiniko ditue; 52 martxan dagoz dagoeneko. Orain arte egin den inbertsinoa 160.000 eurokoa izan da. ■ P.M.



Eguzki-plakak leku estrategikoetan ipini ditue.

▣ IZURTZA

## Udalaren azken erabakiak azaltzeko herri-batzarra

Herritar guztiak egon dira deituta eguaztenean Jubilatuen Elkartean egin daben herri-batzarrera

Azken asteetan Udalean eztabaida piztu daben gaien inguruan Udal Gobernuak bere azalpenak entzuteraz gonbidatu ditu izurtzarrak asteon. Udalean hartu dituen eta Udal Gobernuak oso garrantzitsutzat dituen bi gairen ingurukoa izan da herri-batzarra.

Batetik, AR2 Zati Egitasmoaren inguruan EAeko Auzitegi Nagusiak kaleratutako sententziari buruzko Gobernuaren irakurketa egin eta azaldu dabe. Horretara, herriko lurralde antolamenduari buruzko egitasmoak be jendarteratu gura izan ditue Jubilatuen Elkarteko batzarrean.

Bigarrenik, datozen hileetan etxebizitza sozialak eraikitzen hasitako Udal Gobernuak orain arte emon dituen pausuak be azaldu gura izan deutseez izurtzarrei Gobernuko ordezkariak. Udaleko ordezkariengandik jaso dabe bertaratutako herriarentzako "berebiziko" garrantzia daukien gaiei buruzko informazioa.

**Azken asteetan Udalean hartu dituen eta Gobernuak oso garrantzitsutzat dituen gaiei buruzko herri batzarra**

▣ MAÑARIA

## Urkuleta auzoko ur-hornikuntza sareko lanak

Urriaren hastekoak ziren Urkuleta auzoko ur-hornikuntza sarean egin beharreko lanak datorren hilera atzeratu ditue. Azken urteetan, uda sasoiaren zein urteko beste sasoi batzuetan, auzoko biltegiaren ur emari nahikorik ez dagoela eta ur hornikuntzaren arazoari irtenbidea emateko eskatu eutsien auzotarrek Udalari.

Osozara, 337.127 euroko aurrekontua daukien lanekin, herrian dagoen Mendiburuko ur biltegitik Urkuleta auzoan egingo daben ur-biltegiara eroango dabe ura, eta bigarren biltegi horrek hornituko ditu auzoko baserriak. Datozen asteetan hasi eta urtea amaitu orduko amaitu gura ditue Urkuletako lanak.

▣ DURANGO

## Umeen Euskal Jaiak 500 bat dantzari batuko ditu domekan



J. Fernandez

Aurten 43. aldiz izango daben Umeen Euskal Jaiak 500 bat dantzari batuko ditu domekan. Tronperri eta Txoritxu Alai dantza taldeen eskutik eraturako jaialdia 12:00etan hasiko da, dantzarien desfileagaz. Durangarrek euren etxeetan hartuko ditue bazkaltzeko hurreratutako neska-mutilak, eta 16:30ean berriro elkartuko dira Merkatu Plazan. Dantza alardea 17:00etan hasiko da, Ezkurdin. Honako dantza taldeak izango dira parte-hartzaile Tronperri eta Txoritxu Alai ez eze: Iremiñe (Berriz), Lore Gazteak (Arrasate), Salleko dantza taldea (Sestao), Txindurri (Ermua), Talde Batua eta Iluntze (Abadiño), Andasto (Atxondo), Besaide (Elorrio), Urki (Andoain), Andra Mari (Mañaria), Mutrikuko dantza taldea eta Otxandioko dantza taldea.

## Aterpea ipini ondoren, berriro be zabaldu dau Udalak padel pista

Ekainaren 1ean itxi zitueen ateak, denpora baterako, Durango padel pistetan. Helburua, euria eta eguzkiarengandik babes-teko aterpea ipintzea izan da, eta, Udalak argitu dauenez, lanak amaitu ditue. Aste honetatik aurrera, berriro alokatu leiteke kan-txa hori, eta ikastaroak be martxan ipini ditue. Ikastaroen artean, nabarmentzekoak dira gaztetxoenei eta hasibarriei zuzendutakoak. Pista egokitzeko 333.329 euroko aurrekontua erabili dabe.

▣ BERRIZ

## Berriz-Oiz igoerak hamarkada beteko dau asteburuan

Berriz-Oiz igoerak asteburu honetan beteko dau hamarkada. Domekan, urriaren 25ean, jarri dabe bizikletariendako hitzordua, 09:00etan. Elizondotik irtengo dabe. Parte hartu gura dauenak Berrizburu kiroldegian emon leike izena; bestela, bertan egunean be egin leiteke, Elizondon. Hiru euro ordaindu behar-ko dira horretarako. Batutako dirua Esklerosi Anizkoitzak kalte-tutakoan aldeko elkartera bideratuko dabe, ohi legez.

▣ DURANGALDEA

## 'Errazetak' liburuan parte hartu dau Kalitatea Fundazioak

Andoni Lupiañez durangarrak eta Eneko Atxa zornotzarrak egituratutako 'Errazetak' liburuan parte hartu dau Kalitatea Fundazioak be bai.

Umeentzat prestatutako errezeta, ipuin eta joko bilduma batzen ditu, koloretako argazki eta ilustrazioz, eta, euskarri "erakargarria" erabiliz.

Euskaraz argitaratu dau 'Errazetak' Abadiño Di-Da Komunikazioaren laguntzagaz. Eusko Labeldun 12 produktuak batzen ditu errezetaren baten.



Kalitatea Fundazioa



# BERBAZ >

## “Baserritarra duintasunez bizitzeko modu bakarra salmenta zuzena da”

Euskal Herriko baserritar gazteek Azpeititik Durangorako martxa egingo dabe asteburu honetan

### Hegoi Escudero •

- Akuilu-ko kidea
- Durangarra



Kepa Aginako

**A**kuilu baserritar gazteen taldeak Azkoititik Durangorako bidea egingo dau asteburuan. *Baserrita da etorkizuna* goiburua hartuta, martxaren helmuga Durangon jarri dabe.

#### Zelan sortu zen Akuilu?

Talde hau orain sei urte inguru antolatutako gazte topaketa batzuetan sortu zen. Nekazaritza eta arrantzaren inguruko hitzaldi batean erabaki eben, berbaldia egin barik, eztabaidatzeko unea zela, eta kezka horreek geunkazenek elkartzeko beharra geunkalagure arazoez hausnartu eta bideratzeko.

#### Nortzuk osatzen dozue Akuilu taldea?

Baserritarrek; hau da, nekazal sektorean dagoeneko diharduenek, eta baita horretan sartzeko asmoa edo gogoia daukienek be.

#### Zenbat lagun zagozue taldean?

Euskal Herri osoan 40 gazte inguruk dihardugu.

#### Zer helburu dauka martxak?

Elkar ezagutzeko aukera izango dogu. Aurpegiak ikusi eta bakarrik ez gagozela konturatzeko aukera izango da. Neka-

zal sektorearen arazoetako bat isolamendua da. Aldarrikapen bateratu bat egiteko asmoa daukagu.

“Euskal Herri osoan 40 gazte inguruk dihardugu Akuilu-n lanean”

#### Zer aldarrikapen?

Martxaren leloa *Baserrita da etorkizuna* da. Edozein pertsona taldek bere elikaduraren burujabe izatea behar dau, herri moduan zein auzo moduan garatzeko. Geure herrian etorkizuna daukan eredu baserriari lotuta dago, eta ez agroindustriari. Hau da, tokian tokiko produktuak ekoiztu eta kontsumituko dituen eredu bat, eta sasoiari sasoikoak; modu produktibista batean izan beharrean, modu logiko batean.

**Baserritar izateko gogoz zagozue.** Baserrian erreleboa hartu gura daben gazteak dagoz, baina baita instalatzeko gogoia daukienak be. Emon leike gazteek ez daukagula asmo hori, baina kontrakoa da. Instalatzeko arazo handiak dagoz.

**Zer ekoizpen bultzatzen dozue?** Salmenta zuzena da bide justu bakarra baserritarra duintasunez bizi daiten. Akuilun askotariko ekoizleek dihardue, baina horretan ados gagoz.

**Etorkizuna zelan ikusten dozue?** Martxaren leloan be badinogun legez, benetan pentsatzen dogu etorkizuna badagoela. Ez da etorkizunik egongo administrazioak bultzatzen dauen eredu produktibista eta intentsiboagaz. Sektore hau ahal den produktu gehien ahal den kostu baxuenera bideratuta dago. Modu horretan jarraitzea ez da posible. Salmenta zuzenik barik ez da posible baserriak bizirautea.

**Kontsumo taldeak sortzen dabilz.**

Baikorrek gara. Talde batzuk sortzen dabilz, eta kontsu-

mitzaileek be jaten dabena inguruko kontzientzia hartzen dabilz. Geroago eta talde gehiago sortzen dabilz hiri eta herrietako pertsonen inguruko baserriarrei erosteko asmoagaz.

#### Zer ibilbide egingo dozue?

Azpeitian hasita gaur abiatuko gara. Azkoitin herri-bazkaria eta kontsumo taldeei buruzko mahai-ingurua egingo doguz. Elgoibarren lehenengo etapa amaituko dogu ekoizteko eredu inguruko mahai-inguruagaz. Bihar, Eibarren, nazino mailako manifestazioa egingo dogu. Ermutik Mallabirako bidea hartuko dogu. Jarraian, Mallabian talo-jana antolatuko dogu, eta baserrian oinarritutako filma. Domekan Zaldibar, Berriz, Abadiño eta Durangora joango gara. Traktore batez errepidetik joango gara. Bideko eritimoa bajatu gura dogu, hausnarketa eragiteko: gizartea azkarregi doala deritzogu. Durangon Euskal Herriko hainbat baserritar gazte antolatutako azoka izango da, eta ondoren bazkaria egingo dogu. ■J.G.

“Administrazioak bultzatzen dauen nekazaritza ereduagaz ez gagoz ados”

“Geroago eta kontsumo talde gehiago sortzen dabilz”

“Domekan Durangon amaituko dogu martxa. Azoka antolatuko dogu”

# EKONOMIA<sup>></sup>

> DURANGALDEA

## Eraldaketa “sakon” baten alde, 10 urrats

Krisiari aurre egiteko dekalogoaren aldeko sinadurak batuko ditue sindikatuek

**E**raldaketa “sakon” baten alde 10 neurri “zehatz” eta “bide-ragarri” aurkeztu ditu Euskal Herriko gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, ESTEE/EILAS, EHNE eta HIRU): “Justizia sozialean, berdintasunean, aberastasun eta lan

ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek bultzatutakoa da aurkeztutako dekalogo

produktibo zein erreproduktiboaren banaketan oinarritutako” bestelako eredu ekonomiko eta sozial baten alde.

Egungo krisiari “eredu” krisia deritzoe, eta horren aurka egindako greba orokorraren “arrakasta” nabarmendu arren, krisi hori gain-



EHNE, LAB, ELA eta ESK-ko Durangaldeko ordezkariak euren sinadura emoten. A.Basauri

**EHNEk dino esne ekoizleen arazoa ez dela laguntza bidez konponduko**

Europako Nekazaritza komisarioak esne ekoizleendako iragarritako diru-laguntzak kritikatu ditu Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak (EHNE). Benetan sektoreari lagundu gura badeutso politika “ausarta” egitea eskatu dau nekazarien sindikatuek.

Europako Nekazaritza arduradunak 280 milioi euroko diru-laguntzak iragarri ditu, asteon. Halan be, diruaren banaketa herrialde bakoitzaren produktioaren arabera egingo balitz, EHNEk salatu dauenez, Hego Euskal Herriko abeltzain batek ez leuke 450 euro baina gehiago jasoko. Diru hori, batez beste, 80 behi daukazen ustiategi batean egun bateko elikaduraren kostua dela nabarmendu dau. Sindikatuek gogoratu dau “hemen, diruagaz konpontzen ez den merkatu arazo larria” dagoela. ■ A.B.

> DURANGO

## CCOOK Transformados Ibaizabalen sindikatu “jazarpena” salatu dau

Langile bat “bidegabe kaleratu” dabela dinoe

Transformados Ibaizabal enpresak bederatzi urteko antzinatasuna daukan langilea, “CCOOKo zerrendan agertzeagaitik bidegabe kaleratu” dabela salatu dabe. “Sindikatu jazarpena” salatu dau CCOOK, ohar batean. Hauteskunde sindikalen aurrean, zuzendaritzak CCOOKo hautagaien kontrako “boikot eta jazarpen estrategia” hartu dauela dinoe, “delegatu izateko hautagai baten kaleratze arbitrarioagaz amaituz”. Gaur, 12:00etan, elkarrateratzera deitu ditu delegatuak CCOOK, enpresaren aurrean.

Ibaizabal Taldearen hiru lantokietako —Durango, Abadiño eta Izurtzan— batek “aurpegi diktatorialena” agertu dau CCOO-

ren ustez, “askatasun sindikalaren kontrako zirikatzeko estrategia hotz horregaz”.

“Bidegabekeria aitortuz” kaleratzearen barri baino ez jako emon, burofax bitartez eta “arrazoirik emon barik”. Agerian itzi ei dabe “fedea gaiztoa”. Eskubide guztiakin behargin hori berriro hartzea eskatu dau CCOOK. ■ A.B.

Elkarrateratzera deitu ditu bere delegatuak CCOOK, gaur, 12:00etan, enpresaren aurrean

ditzeko “ezer” ez dela egin gogoratu dabe Durangaldeko sindikatuotako ordezkariak. Hori da dekalogoaren alde hasitako sinadura kanpainaren oinarria: “Instituzino eta agintariei eraldaketa sakon eta benetakoa eskatzea, politika sozial, ekonomiko eta lan arlokoak aldatzeko”. Dinoenez, agintariekin aurrez aurre jartzea erabaki dabe, “eurekin batuta antzerkia egitea erabaki dauen gitxiengo sindikalak ez bezala”.

**Kanpaina abiatu dabe**

Euskal enpresetara joko dabe urria eta azaroa bitartean, eta abenduan kalera irtengo dabe: “Euskal lantokietako langileez gainera, badagoelako gizartearen beste zati bat (lanbakoak, ikasleak, pentsionistak...) aldaketaren beharra ikusten dauena”, dinoe. Horretara, Durangaldeko herri nagusietan sinadurak batzeko mahaiak ipiniko ditue; Euskal Liburu eta Disko Azokako egunak be aprobetxatuko ditue horretarako. Azaroaren 13an Gasteizen, eta abenduaren 11n Iruñean, deialdi bi egin ditue, EAEko eta Nafarroako aurrekontuen inguruan. ■ A.B.

Instituzino eta agintariei “benetako” eraldaketa “sakona” eskatu deutsee

Azaroa bitartean jardungo dabe euskal lantokietan sinadurak batzen, abenduan kalera irtengo dabe

**Morositatea ekiditeko ikastaroa eratu dau +Dendak-ek**

*Morositatea: zelan saihestu ez-ordainketak*, izenburu horrengaz antolatutako ikastaroa +Dendak merkatari elkarteak. Dinoenez, “gero eta nabarmenagoa da ez-ordainketen igoera eta horreek kobratzeko zailtasuna, eta horrek preminazko gaitasun eta ezagutzak bereganatzera derrigortzen gaitu. Horretara, kobrantza arin eta seguruagoen alde, arriskuen jarraipen hobia lortu gura dogu”. Urriaren 26tik 30era izango dira eskolak, 14:15etik 16:15era, elkarterean egoitzan.

Kobrantzetarako negoziaketa eta limurtze teknikak landuko ditue, ez-ordainketak berreskuratzeko eta egoera horreek saihesteko. Kafe-komenta teknika erabiliko dabe horretarako. Izen-emotea: 94 681 81 42. ■ A.B.

■ kolaborazioa




Aitor Iturriaga  
LAB sindikatua

**Elurrezko bola**

Estatuko estoldetan ehundutako sare pelagikoetan eraman dituzte Arnaldo, Rafa eta gainontzekoak. Delitua: politika egitea, ezker abertzalearen iparrorratza konponbidearen norabidean jarritz. Amorruek barrenak irauli eta bihotzak besterik dioen arren, buruak hotz behar luke. Ezin dute gure ibilbide-orria aldatu. Estrategia eraginkorrerako bidea ez dezala Estatuaren hamaikagarren barrabaskeriak zapuztu. Dudamudatan dagoena, inperioaren erantzunak argitu beharko luke. Dena da eramangarri Estatuarentzat, sekula ikusi gabeko indar metaketa ahalbideratu dezakeen eszenatokia izan ezik. Borroka tresnek eta moldeek eraginkorrak izan behar dute. Tresna diren heinean, helburuen menpe behar lukete, eta ez alderantziz. Ezin diegu beste belaunaldi bat oparitu. Utz diezaiozun etsaiek idatzitako obra antzezteari. Idatzi ditzagun guk geuk, aurrera begira eman beharreko pausuak. Arrazoa ez ezik, aitzindaritzak, ilusioa, indarra, harrotasuna eta geure proiektuan fedea berreskuratu ditzagun. Rubalcaba eta konpainiak ezabatu nahi arren, herri honetako atal garrantzitsu bat gara; lantoki, herri, auzo eta mila borrokatan zailduak; musutrukeko lanean lizentziatuak; jende jatorra eta langilea, finean. Erresistentzia fase batetik eraikitzeko faserak eman dezagun jautzia. Irten gaitezen errepresioak lekutu gaituen lubakietatik, eta berreskuratu dezagun kalea. Esan diezaiozun faxistei, kainoiek ere ez dutela isilduko herri honen aldarria.

Donostiko argazkiak estrategia berri baten mugarri beharko luke. Higitutako diskurtsoek eta herdoildutako taktikak, egin diezaiozela leku marrak berri bati. Hustu dezagun beraien diskurtso antzua, eta bota gaitzen mendi puntatik elur bola bezala, aurrera goazela handituz, eta oztopo oro irentsiz. Oraindik ez da jai herri honetan osatu daitekeen gehiengo soziala gorpuztuko duen jende uholdea geratuko duenik. Sigletatik haratago, herri gisa apustua egiteko garaia iritsi da. Egin dezagun aproba, merezi du-eta, merezi dugu-eta!

# KULTURA<sup>></sup>



## The Hot Wok, funk eta jazz gasteiztarraren zaporea

**U**rriaren 30ean Durango-ko Plateruenean aurkeztuko dituzte otsailean Mekoletako 008 estudioan grabatutako euren disko berrian bildutako elektro-funk-jazz-brass doinuaren koloreak The Hot Wok taldeko musikariek. Disko "beroa, pikantea, eta zuzena", taldekideen berbetan jaso dugunez.

Gitarra, piano eta baxuaren soinurik barik, haizezko instrumentuekin eta bateriarekin bakarrik osatu gura zuten taldea. Musika beltzaren zale diren musikari eta entzule gehien biltzen dituen Euskal Herriko hirian, Gasteizen, sortutako doinuak dakartzate The Hot Wokekoek Plateruenera.

### Dantzarako apropos

Zuzenekoetan, entzulegoagaz elkarreragin eta hartu-eman oso berezia sortzen daki The Hot Wokek, igartzen baita oholtza gainean eta musika egiten primeran pasatzen dutela. Entzuleari euren jolasean sartzea eta dantzarako zein ondo pasatzeko grina sortzea dute kontzertuetan helburu nagusi: "Kontzertuko bigarren kantara ailegatu eta baten bat ez bada mugitzen hasi, aretoan hildako bat dugulako da!", diote barrezka.

Saxoa, tronboia, tuba, bateria eta Dj Parrutxoren soinu efektu elektronikoak uztartzetik sortzen dituzte gustu berezi-berezia duten kantak The Hot Wok taldeko musikari gasteiztarrek. ■ I.E.

## 12 Udazkeneko Hitzaldi zikloa

Durango Uriko Udaletxean udalbatzarra lehenengoz batu zeneko 400. urteurrena izango da Gerediaga elkarteak antolatzen duen hitzaldi zikloaren aurtengo ardatz nagusia.



13

## Kantuaren Kantoia

Sorkuntzari buruzko solasaldi musikatuetan parte hartuko dute, urrian eta azaroan, Plateruenean, Anari, Urdangarin, Murugarren eta Petti musikariek.

ANARI &gt; Urriak 29

## “Ordena kronologikoan egingo dut emanaldia”

**Musikari talde barik aritzeak zer sentazio eragiten ditu?**

Hasieran askoz errazago eta naturalago egiten nuen bakarrik. Denborarekin, aldiz, hutsune handia sortzen da bandaren faltarekin. Sentsazio hauek pasatu eta gero, badago beste konexio era bat biluztasun horretan: ahotsa eta hitza hazi egiten dira eta hor konpentsazioa ematen dela esango nuke.

**Zure sorkuntzari buruz berba egitea zail egiten zaizu?**

Ez zait bereziki zaila egiten. Deitu sorkuntza, deitu metodoa, bakoitzak berea du; denborarekin gauza desberdinak bilatzen dituzu: hasieran, zeure buruaren atzetik joatea da sorkuntza. Gero, zeure buruari ihes egitea; azken hau askoz zailagoa da.

**‘Irla izan’ disko berriko kantaren bat joko duzu?**

Kantaren bat baino, kanta bat. Emanaldiakronologikoki banatuko dut, aukeraketa bat eginez.



A.Arroita

MIKEL URDANGARIN &gt; Azaroak 5

## “Bakarrik aritzeak biluztasuna dakar”

**Izan duzu aurretik antzeko beste esperientziarik?**

Behin Nafarroako Unibertsitate publikoan hitzaldi bat ematea eskatu zidaten, eta ikaste-txeetan ere aritu izan naiz. Kantuaren Kantoiak, baina, izaera berezia daukala uste dut.

**Zure sorkuntzari buruz berba egitea zail egiten zaizu?**

Norberaz hitzegitea ez da eroso izaten, baina Kantuaren

Kantoia elkarrizketatik egongo da hurbilago, eta litekeena da erosoago sentitzea.

**Bakarrik aritzeak zer sentipen edo oroitzapen dakarkizu?**

Beti aritu izan naiz lagunduta. Bakarrik aritzeak biluztasuna dakar bere baitan, eta, normalean, biluzik hotz da pertsona, baina bere alde dauka jendearengana heltzen asmatuz lokarri sendoa sortzen dela.



A.Arroita

TXUMA MURUGARREN &gt; Azaroak 12

## “Interesgarria da hausnarketa egitea”

**Izan duzu antzeko esperientziarik?**

Ez, baina oso interesgarria da musikaren sorkuntzaz hausnarketa egitea. Kanta zer den, nola sortzen den eta zer dohai izan behar duen hausnartzea abiapuntu ona da guztiok aberasteko.

**Zure sorkuntzari buruz berba egitea gustuko duzu ala kostatu egiten zaizu?**

Ez zait zail egiten, eta gustatzen zait horren bueltan zerbait ikasten badut: nire ikuspuntua planteatuko dut, nire egiteko modua azaldu, eta beste batzuek esan

beharko dute zein den eurena eta zertan egiten duten bat nirearekin. Elkartruke hori oso interesgarria da.

**Azkenaldian kabaretean ibili eta gero, noiztik ez zarete egon zeu eta gitarra bakarrik? Zelako sentazioa duzu Plateruenerako emanaldiari dagokionez?**

Aspaldi ez naiz gitarrarekin bakarrik paratu, baina, hala ere, nire parte-hartze horretan ez da gitarra elementurik garrantzitsuena izango, baizik eta nire lanaren lagin batzuk, grabaketa batzuk, kantaren une desberdinak adierazten dituztenak.

**Zer kanta joko dituzun erabaki duzu?**

Hasierako materiala prestatuta dago, sobera eramango dut, bertan aukeratu ahal izateko. Musikari eta sorkuntzari buruzko hausnarketa izango da.

**F**ormatu guztiz berritzaileagaz, Euskal Herriko lau musikari eta eurekin solasaldia izango duen Juanan Hernandez kazetaria batuko dira Plateruenerako oholtzan, udazken honetan. Jendaurreko elkarrizketa formal edo ohiko bat egitea ere ez da Kantuaren Kantoian egingo dutena, Martxoak 31 taldeko musikari izandako Hernandezek dioenez, “elkarrizketak baino, solasaldi musikatuak izango dira”. Galdera-erantzun itxura baino gehiago, tertulia baten itxura izango omen du gehiago Anari, Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren eta Petti musikariak protagonista izango dituen ekimenak.

Eskuartearen euren gitarra dutela etorriko dira lau musikariak Plateruenerako gau-emanaldi berezietara. Juanan Hernandezen berbatan, “lehenengoz frogatuko dugun esperimendua da Kantuaren Kantoia”. Antzeko proposamena, irratian egiten diren elkarrizketa akustikoak lirareke, baina Hernandezek nabarmentzen duenez, Kantuaren Kantoia ez du horiekin antzekotasun handirik.

Irratietakoetan sarritan azken helburua disko baten promozioa

Juanan Hernandez kazetariak gidatuko ditu solasaldiak

Zer kanta joko duten aukeratzeko erabat libre dira musikariak

egitea izaten den bitartean, Kantuaren Kantoia helburu nagusia “gehiago da musikaria biluztea”, dio Hernandezek; musikaria gehiago ezagutzeko aukera eskaintzea Plateruenera biltzen diren entzuleei. Asmoa “saioaren ardatza kantua izatea da”, dio.

Egile bakoitzak Durangora zer kanta ekarriko duen hautatzen, erabat “libre” utzi dietela dio Hernandezek: eurak gura dituzten kantak aukeratu dituzte lau musikariek. Eta aukerak asko eta askotarikoak izan litezke: euren disko

# Kantuaren Berbaldi musikatuak

Asteroko programazioa osatzeko kultur programazio bere antzokian Kantuaren Kantoia: Anari, Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren eta Petti musikariak protagonista izango dira.



Juanan Hernandez kazetariak gidatuko ditu lau musikariak protagonista izango dira.

eta maketetan jasotako kantez gainera, gustuko duten musikari edo talde baten bertsioa, edo txikitari amari entzundako kanta bat hautatu ahalko dituzte Kantuaren Kantoian eskaintzeko musikariek.

Euren bizitzan eta ibilbide musikalean eragina izan duten kantak aukeratu eta eskainiko dituzte. Horregatik, saioen nondik norakoa aurrez azaltzea ezinezkoa dela diosku Hernandezek: emanaldi oso bereziak izango dira.

Kantuen inguruan eratzen joango da berbaldia. “Musikariek

Euren bizitza eta ibilbidean eragina izan duten kantak

Kantua eta musikariak, Kantuaren Kantoiko protagonista nagusiak

PETTI &gt; Azaroak 19

## “Zinemarekin zerikusia duen zerbait egingo dut”

**Izan duzu aurretik antzeko beste esperientziarik?**

Ez dut inoiz antzeko deus egin, eta egia erran interesgarria iruditu zitzaidan, gehienbat, zerbait ezberdina eta berezia delako. Kantuaren Kantoian zerbait polita egiteko aukera dagoela uste dut.





# kantoiak lau musikarigaz

zia eskaini guran antolatu dute Durangoko Plateruena  
uma Murugarren eta Petti gonbidatu dituzte saioetara



ango dituzten eguen iluntzetako saioak. I.E.

aukeratutako kantak izan daitezela solasaldiaren abiapuntua eta ardatza": horixe da aurkezle eta gidari izango denak esan diguna.

Txuma Murugarrenek, esate baterako, dagoeneko aurreratu ei dio Hernandezi Kantuaren Kantoiaren egin gura duena: "Kanta baten sorrera prozesua zelakoa den erakustea". Horretarako, hasierako maketetako kantak eta bitarteko bertsoak ekarriko ditu, besteak beste Durangon.

"Protagonistak, musikariak eta euren kantak" izango dira eki-

men honetako lau saioetan. Normalean ezagutzen ez dugun musikariren alderdia entzun eta ikusteko aukera izango da entzuleek izango dutena. "Biluzte ariketa" moduko batean, sorkuntzara gerturatuko gaituzte musikariek.

Publikoak, sekula baino gertuago izango dituen lau sortzaile horiei galderak egiteko aukera izango du. Gertutasun eta giro intimor hori lortzeko, eszenografia berezia atonduko dute Plateruenean. Berrogeita hamar lagun inguruzko jesarleku eta

mahaiak ipiniko dituzte Plateruenean, eta musikariak jendartera jaitsi beharrean, entzuleak igoko dituzte oholtzara: bereziki prestatutako eszenografia izango du Kantuaren Kantoiak.

Musikari legez duten ibilbide eta garrantziagatik ez ezik, "kontatzeko gauzak" izan ditzaketelako hautatu ei dituzte lau musikariok: "Sortzaile moduan esateko gauzak dituzten musikariak dira Anari, Mikel Urdangarin, Txuma Murugarren eta Petti". Gazteak izan arren, ibilbide luzea duten lau musikari baitira.

Musikarientzako aparteko lana da Kantuaren Kantoiak: behin bakarrik erabiliko den materiala sortzeko prest agertu dira musikariak, "esfortzu berezia eginenez", antolatzaileek nabarmendu eta zinez eskertu dutenez.

Datozen udazkenetan ere jarraipena izango duen sortzaile eta entzuleen arteko hitzordua bilakatzeko Kantuaren Kantoiak: horixe da Platerueneko antolatzaileen helburua. ■ I.E.

Urrian eta azaroan, lau eguenetan, 20:00etan izango dira saioak

Eszenografia berezia atonduko dute lau saiootarako

## GEURE DURANGALDEA



Iñaki Etxezarraga 'Etxe' Abeslaria

### Heldu eskutik!

"Ez dira garai onak, izan ziren hobeak, baina hemen gaude la ez dut ukatu nahi" nioen aurreko diskoak kanta batean. Eta, egia esan, musikaren industria ez dago garai onenean. Azkeneko urteetan diskoen salmenta izugarri jaitsi da, eta hori gutxi balitz, gaur egun jasaten ari garen mundu mailako krisi honen ondorioz, oraindik gehiago jaitsi da.

Horregatik, musikari ugari formatu digitalean hasi dira kaleratzen euren diskoak. Horrela gastu ugari murrizten dira, salmentekin oso zaila baita jarritako dirua errekuperatzea. Orain zuzenekoie ematen zaie garrantzia handiena. Azken finean, formatu digitalean edo diskoan musika berbera da, baina non geldituko dira diskoak betetako apalak? Zure artista kuttunak sinatutako diskoak, neskalgunak oparitutakoak...

Nik ere formatu digitalean ateratzeko asmoa izan nuen hasieran. Estudioa ordaindu, diskoak interneten jarri eta gero zuzenekoekin amortizatu. Baina norbera gusturago gelditzen da CDa esku artean duenean. Fabrikatik iritsi eta CD mordoak kaxa batean ikusteak norbera animatu egiten du. Esfortzuak emandako beste fruitu bat.

Oraingoan nire hirugarrena izango da. Kanta biziak, doinu alaiak, kolaborazio bikainak.

Orokorrean herriari, lagunei, musikari, Mikel Laboari eta nire anaia Zigorri eskeinitako kantak bildu ditut. Azarotik aurrera, zuen apaletan hautsa hartzeko, neska edo mutilagunari oparitzeko edo zuen belarriak gozatzeko eskuragarri edukiko duzue.

Beraz, badakizue, nahi badozue... Heldu eskutik!

## HISTORIA > BERBALDIAK

# Durangoko historiari buruzko 3 hitzaldi udazkeneko zikloan

Eguazten honetan izan da zikloaren barneko lehenengo hitzaldia, eta urriaren 27an eta 28an hurrengo biak. Durangoko Udaletxean da zita

Gerediaga elkarteak antolatzen duen Durangaldeko historiari buruzko hiru berbaldik osatutako zikloa abiatu da asteon Durangon: *Génesis y formación de una villa medieval. La evolución del paisaje urbano de la Villa de Durango* berbaldia eskaini du Belen Bengoetxea arkeologo eta irakasleak eguazten honetan.

### Lau mende atzean

Aurten, 1609. urteko abuztuaren 14an Durango Uriko udalbatzara lehen aldiz bildu zeneko 400. urteurrena hartu du Gerediaga elkarteak Udazkeneko hitzaldi zikloaren ardatz.

Datozen bi hitzaldiak, urriaren 27 edo 28an izango dira. Lehenengoa Jaione Agirre Historian lizentziatuak eskainiko du, urriaren 27an, 19:30ean, Durangoko Udaletxeko batzar aretoan, eta *Durangoko Kontzejua* izenburua darama. Besteak beste, 1554an Durangon gertatutako sutearen

inguruko ikerketak burutu izan dituen Agirre irakaslea hautatu dute zikloaren bigarren berbaldi honen emaila izateko.

### Historia eta arkitektura

Urriaren 28an, berriz, *Casa Consistorial de Durango: historia, arte y arquitectura* goiburua duen berbaldia eskainiko dute Ana Leis eta Iñaki Madariaga irakasleak. Historian eta arkitekturaren historian lizentziaturikoak dira Leis eta Madariaga irakasleak.

'Durango: Udala eta herri agintea' zikloa Durangoko Udalen eta Bizkaiko Aldundiaren Kultura Sailaren laguntzagaz antolatzen du Gerediaga elkarteak.

Orain arteko edizio guztietan bezala, Durango eta Durangaldearen historia gaitan adituak direnak zein interesa duten herritarrek asetuko dituzten hitzaldiak eskaini dituzte aurten ere: Durangoren eta Durangaldearen iragarnari buruzkoak. ■ I.E.

Jaione Agirre Historian lizentziatuak emango du hurrengo berbaldia

Durangoko Udala eratu zela 400 urte bete izana du zikloak ardatz

### Zer moduz eramaten duzu zure sorkuntzari buruz berba egitea?

Egia esan, jendearen aurrean berba egitea ez dut batere gustuko, ez sorkuntzari buruz ez bertze ezeri buruz, baina lan honetan egin beharreko gauza da, eta ez dago bertzerik. Azken finean, musika egiten dut gehienbat solastuz erran ezin dudana kanten bitartez azaltzeko. Horregatik zail egiten zait kantek edo hitzek diotena kantatu gabe azaltzea.

### Zer dakarzu Durangora?

Zinemarekin zerikusia izan den duen zerbait: filmen soinu bandaren bat, eta zinemarekin zerikusia duten nire kantak ekarriko ditut.



LITERATURA &gt; JARDUNALDIAK

## Errumaniako literatura, zinema eta artea Iurretako Ibarretxen

Erroldaren arabera, errumaniarrek osatzen dute Iurretako atzerritar kopuru handiena; euren kultura ezagutzeko proposamena luzatu digute

Urriaren 26tik azaroaren 6a arte, hiru artista errumaniarren argazkigintza, eskulturgintza eta zeramika lanak erakusketan bilduta izango dira Iurretako Ibarretxe kultur etxean. Herrian atzerritar gehien jatorrizko kulturara gerturatzeko aukera ere izango da datozen eguntan Iurretan, liburuen, musika eta zinemaren bitartez.

Iñaki Totorika alkateak aurkezpenean esan duenez, liburategia lako zerbitzu publikoak "gizarte gero eta multikulturala gora moldatu beharri erantzuteko" martxan ipinitako ekimena da EAEko 11 liburutegi hautatutan martxan ipini duten Munduko Paisaiak ekimena. Iurretan ere gero eta agerikoagoa den "hizkuntza, kultura eta ohitura aniztasunarekiko tolerantzia bultzatzeko" modu legez aurkeztu dute urri eta azaroan zeharrekoa.

Gaztelerez, euskaraz eta errumanieraz argitaratutako literatura

Bideoforuma, hitzaldia, erakusketa eta ipuin kontalaria izango dira

Errumaniarrez, gaztelerez eta euskaraz argitaratutako literatura eta musikaren gida eta bilduma prestatu dituzte Herri Bibliotekan, herrian bizi diren jatorri guztietako biztanleentzako. Gure herrietako aniztasunaren aberatasuna haurrei ere helarazteko, ipuin kontalariaren emanaldia izango da: *Historias de Rumania* saioa, Amaia Arriaranen eskutik, urriaren 30ean izango da.

Bestalde, etorkin errumaniarren bizipenak biltzen dituen Carlos Iglesiasen *1 euro, 3,5 lei* dokumentalaren emanaldia eta ondorengo solasaldia antolatu dituzte, urriaren 29ko 18:30erako.

Errumaniako kulturaren erakusleho ahalik eta zabalena izateko, herrialde hartako erlijio aniztasunari buruzko hitzaldia izango da, eta jardunaldia bukatzeko gastronomia dastaketa eta kontzertua antolatu dituzte. ■ I.E.

BERTSOLARITZA &gt; IKASTAROA

## Eskoletan bertsogintza barneratzeko proiektua

Traña-Matiena eta Maiztegi herri ikastetxeetan ipini dituzte bertsolaritza ikastarook martxan

Bertsogintza eskola orduetan lantzeko helburuz Bizkaiko Bertsozale Elkartek martxan ipinitako proiektua abiatu dute Matienako Traña-Matiena eta Iurretako Maiztegi herri ikastetxeetan.

Matiena eta Iurretako herri eskoletako 80 ikasle bertsotan

Hil honetan hasi eta maiatzera arte iraungo du Durangaldeko eskola bietako bertsogintza ikasturteak, eta laurogei ikaslek hartuko dute bertan parte.

Astero ordu batez, bertsolaritza irakasle batez, hamabi sekuentzia didaktikotan banatutako bertso liburua landuko dute. Berbekin eta hizkuntzarekin jolas-tuz, euskara, kultura, musika zein gizarte trebetasunak -jendeaurre-

kotasuna, elkarkidetz...-landuko dituzte Durangaldeko eskola bietako ikasleek. Eskolako eguneroko lanaz gainera, hainbat jarduera osagarri ere izango dituzte: bertso saioak, esaterako. Ikasleek bertsotarako motibazioa areagotzeko, besteak beste, bertso kantaldiak ere antolatzen dituzte, Bertsozale Elkarteko antolatzaileek nabarmentzen dutenez: gitarraren doinuek lagunduta, ikasitako bertso eta kantak abestuko dituzte ikastaroan.

Bukatzeko, Bilbertsoak izeneko bilduma ere osatuko dute: eskoletan, gelaz gela batutako lanekin argitaratzen duten liburuxka osatuko dute. ■ I.E.

Bertso kantaldi eta saioak ere antolatzen dituzte eskolan

PINTURA &gt; ERAKUSKETA

Beittu Art Gallery-ko kudeatzaile den Fernando de Vicenteren koadroak biltzen dituen erakusketarako lanak Berrizko Kultur Etxeko sarreran daude ikusgai. Laneunetan, 18:30etik 20:30 bitartean zabalik dago, urriaren 16an hasi eta azaroaren 1era, DeVicente margolariaren lanen erakusketa.

*Joskurak* izeneko bilduman, serigrafia-tinta zein disolbentearekin eta argazkiekin fondoak osatuta egindako koadroak bildu ditu De Vicentek. Berrizko tailerlean osatu zituen Fernando de Vicentek lanok; esperimentazioaren bitartez lortutako emaitzak dira erakusketako piezak.

### Sentsazioak margotuz

Aurreikuspenik barik egindako koadroak direla esaten du egileak, "sentitzeko ariketak egitetik sortutakoak"; sentsazioek gidatuta margotutakoak. Hau da, planifikazio gehiegi barik eta tailerlean eskura izandako materialak baliatuta egindako koadroak dira *Joskurak* erakusketa osatzen dutenak.


Artistaren jenialitatean eta autorearen lanaren bakartasunean ez du sinesten De Vicentek, eta horregatik erakusten dizkie Ezkurdiko tailerreko ikasleei lantzen dituen teknikak. ■ I.E.

Esperimentazioaren bitartez sortutako koadroak dira

De Vicentek Berrizko tailerlean egindako lanak, azaroan ikusgai

## Fernando de Vicenteren 'Joskurak' Berrizen ikusgai

Urriaren 16tik azaroaren 1era arte dago ikusgai, Berrizko Kultur Etxean



**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

URRIAK 24 19:00etan  
DANTZALDI IBILTARIA 2009  
DANTZALDI ERROMERIA. Sarrera doan.

URRIAK 29 20:00etan  
KANTUAREN KANTOIA  
BERBALDI MUSIKATUA. Sarrera doan.

AZAROAK 30 22:00etan  
THE HOT WOK + DJ PARRUCHO  
KONTZERTUA. Sarrera: 6-8 euro.

AZAROAK 31 20:00etan  
XABIER LETE  
POESIA IRAKURTALDIA. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

www.plateruena.net

**ANIMALES ARTIFICIALES**  
Matarile Teatro (S. de Compostela)  
Urriak 25 • 18:00etan

**TONY JODAR**  
Dantza moderno eta garaikideari buruzko hitzaldia  
Urriak 27 • 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**HITZ**  
Liburudenda

Tel.: 946 601 07 76 Artekale, 14 Durango



NEKAZARITZA KOMERTZIALA

# BASERRI TRESNAK

Konponketa eta salmenta:  
traktoreak, segamakinak, motozerrak,  
motoaitzurak, moztailleak, belarra mozteko makinak,  
sasiak garbitzeko makinak...



ETORRI ETA IKUSI



**539€**

ESKU-MOTOSEGA  
FS 230

OPARIA

MOTOZERRAK



MS 170-B

**199€**

OPARIA



**329€**

HESKAI-MOZTEKOA  
HS 45

OPARIA



MS 181

**269€**

OPARIA



MS 250

**449€**

OPARIA



**489€**

HIDROGARBIGAILUA  
RE 10T



MSE 140 C-Q

**199€**

44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



# "Kanpora zoazenean ohartzen zara mila bide eta modu daudela bizitzeko eta sentitzeko"

1982ko abenduan munduratu zen Irati Anda. Amak dioenez, proiektu handi askoko emakumea da eskalatzaile gasteiztarra. Bere ametsak eskuratzeko behar beste igotzeko prest dago. Gora begira ez baitago mugarrik.



Irati Anda eskalatzaile gasteiztarra. Gerediaga Elkartea

*Gora begira ez omen dago mugarrik, halaxe dio zure interneteko atariak.*

Eskalatzeko bide baten ize-na da hori. Beti izan dut gustuko esaldiak berak sortzen didan sentazioa. Aurrera begira mugarrik ez dagoela esan nahi du. Edonoren ametsen bidean, benetan zerbait lortu nahi baduzu, ez dago mugarrik. Bizi izan dudan esperientziak hori irakatsi dit behintzat.

*...eta Liburu eta Disko Azokak badu mugarrik?*

Urtero ikusi ahal dugun bezala, argi dago ez duela mugarrik. Euskal Liburu eta Disko Azokak urtero ekartzen dizkigu gauza berriak. Urtero dugu berrikuntza horiek gozatzeko aukera, eta hori ikusten da ez dagoela mugarrik. Mugak topa ditzakegu, bilatzen hasiz gero, baina euskal kultura ez dago horretarako.

*Eskalatzaile profesional batek zenbat denbora eskaintzen dizkio literatura eta musikari?*

Nire kasuan, behintzat, musikari literaturari baino denbora gehiago. Niretzako musika sentimendua adierazteko bide bat da, eta izugarri laguntzen dit. Batzuetan hard rocka, bestetan bakarlariak, Mikel Laboa edo Benito Lertxundi... Denek adierazten didate zer edo zer, eta denei esker adierazten dut nik ere.

*Kranj, Paris, Sevilla, Txina, Japon... zenbat herrialdeetako kulturak zeharkatu dituzu sokatik zintzilik?*

Dezente, egia esan behar badut. Hori da bizitza honetan gehien gustatzen zaidan gauzetako bat: mundua ezagutu ahal izatea, mundua bizitzeko modu ezberdinak... Askotan pentsatzen dugu guk bizi duguna dela bizitzeko modu bakarra, eta kanpora zoazenean ohartzen zara mila bide eta mila modu daudela bizitzeko eta sentitzeko. Niretzako hori oso aberasgarria izan da.

*Zerk bultzatzen du Irati Anda Landakoko paretara?*

Aurten, Berri Txarrak taldearen azkeneko diskoak. Beraien letrak, musikak eta sorkuntzak bizirik sentiarazten nau. Eta, tira, azken diskoa atera dutenez, aitzakia ederra daukat bertaratzeko.

*Zein da egun horietan sortzen diren paisaiatik gehien liluratzen zaituena?*

Atxarteko paretak dira gehien atsegin ditudan paisaiak Durangaldean. Egun horietako paisaian ere bai (barrez). Aitortu behar dut ez naizela gehiegi ibili, baina gaztetan bertan hasi nintzen eskalatzeko; bertan ezagutu nuen eskalada eta asko disfrutatu dut. Aspaldi honetan bertako paisaia eta lasaitasuna berreskuratzen hasi naiz.

*Hala ere, Azokak berak izango ditu koska batzuk oraindik gailurrera iristeko...*

Seguru aski, bai, eta oso positiboa da hori. Azkenean, igotzeko koskarik ez badago, zeure horretan gera zaitezke. Emoziorik gabe. Nik uste dut positiboa dela urterik urte koska berriak aurreikusi eta ezartzea. Aurrera egiteko grina elikatu eta gogo bizia mantentzea oso garrantzitsua da.

*Topatuko al zaitugu standen batean?*

Aurten agian ez, baina iaz bertan izan nintzen, Bideografiaren izenean Mallorcan egindako bideo dokumentala aurkeztzen. Egun ere baditut proiektutxo batzuk buruan. Pixkanaka aurrera atera nahi nituzke... eta nork daki! urteren batean berriro ere bertan izango naiz akaso, standen batean lanean.

**44 segundutan**

- Poltsan eramateko liburu bat
- 'El guerrero pacifico', Dann Millman
- Kotxean entzun duzun azken diskoa
- Berri Txarrak-en 'Payola'
- Zapaltzeko gailur bat
- Kirol Zientzien goi mailako ikasketak bukatzea: eskalada luzea
- Garaikur bereziarena
- Euskal Herriko Txapela, 2007an
- Beti oroituko duzun momentua
- Lehenengo muxua... kar kar kar
- Amets bat
- Mafaldarekin bazkaltzea

44

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2009ko Abenduaren 4tik 8ra

DURANGOKO AZOKA = ZURE ESKURA DAGO =

CATALÁ & EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO + 4.000 m<sup>2</sup>

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA) X 44 URTE



Durangaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea



BFA DFB



DURANGO Ustea



bbk



EROSKI



III Institut Ramon Llull  
Hizkuntza eta kultura katalanak



eitb



LESA





# KALITATE TURISTIKOA >

## “Metodo honegaz lan egiteak talde moduan eboluzionatzea suposatzen dau”

Zornotzako Boroa Jatetxeak 5 urte daroaz kalitate turistikoaren Q-agaz lanean. Esperientzia badauka, beraz, sistema berezi horren praktikan. Asun Ibarondo da Boroako arduraduna, eta berak azaldu deuskuz metodo horrek dakarzen onurak eta abantailak. Modu horretan lan egitera gonbidatzen ditu gainerako enpresariak.



Zornotzako Boroa auzoan aurkitu geinke Q metodoa darabilen jatetxe hau. M.O.

### Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?

Batez be, talde lanean hobetzeko metodoa delako egin genduen apustua, lanak egituratzen dituelako. Orain arte, lana egiten genduen, baina inork ez euskun erakutsi talde moduan zelan funtzionatu ahal genduen. Bilboko Ostalaritza Elkartetik etorri jakun informazioa, eta ikastaro batzuk egiten hasi ginen. Enpresa batzuekin be kontaktuan ipini ginen formazioa jasotzeko.

### Zer abantaila ekarri deusue ziurtagiria edukitzeak?

Jatetxean talde dinamiko eta orekatua dagoela erakusten dogu, baita adeitsua be. Q metodoa bezeroarenganako arreta azpimarratzen dauena dela uste dot, eta horrek sona be emoten dau.

### Bezeroek igartzen dabe eragina?

Nik baietz uste dot, edo behintzat halan izan beharko leuke. Gainera, ziurtagiria jasota, bi urterik behin

barritzen joaten gara auditorien bitartez, eta horrek metodologiak funtzionatzen dauela esan gura dau.

### Q-aren kudeaketaren baitan, zer konpetentzia nabarmenduko zeunke?

Nik mantenua eta garbitasuna aipatuko neukez. Mantenuan, tresneriaren gaineko kontrola eroaten da; adibidez, kafe makinaren iraupenaren arabera probetxua ateratzea da helburua: urte asko badaukaz eta askotan

konpondu badogu, analisisiek esaten deuskue aldatu behar den ala ez. Garbitasunaren kasuan, egunez egun jarraipen zehatza egiten deusagu lan guztiari, eta zeozerk huts egiten badau, badakigu zergaitik izan den. Gauzak ondo egiten doguzen segurtasuna emoten deusku horrek.

### Metodo honek enpresa, zure kasuan jatetxea, lehiakorragea egiten dauela uste dozu?

Noski. Analisisiak egiteko aukera emoten dau, bakotzak gura dauen maiztasunagaz. Horrek emaitza guztiak azaleratzen deusuz, eta badakizu zertan hobetu zeinken, edo ez. Zure eskuetan dago gauza bati buelta emon edo halan iztea. Lehenago buruan geunkan jarraipena, orain paperean eta sistematizatuta daukagu.

### Kalitateko sistema baten lan egiteko gonbidapena egiten deusezu gainerako enpresariei...

Zalantzarik barik. Hasieran gatxa suertatzen da, paper asko dagoelako tartean, eta langileak kontzientziatzea ez delako erraza. Baina talde moduan eboluzionatzea suposatzen dau: zeozer txarto irtetzen bada, taldearen ardura dela ondorioztatzen da, eta ondo irtetzen denean be bai. Jatetxe-ko sail guztien artean oreka bilatzea da kontua. Guk, oso balorazio positiboa egiten dogu.

**Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziagaz batera eta Euskalit-egaz elkarlanean, enpresariari bere antolakundea lehiakorrageo egiteko beharrezko dituen tresna eta laguntzak emoten deusaz, programa honeen bitartez:**

**PRAKTIKA ONAK:** Kalitateagazko sentsibilizazio eta konpromisoa, aukeratutako destinuen sektore turistikoko profesionalen zuzenduta.

**KALITATE TURISTIKOA:** Kalitateko kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroak asebetetzeko eta aurreikuspenak betetzeko bermea.

**EFQM BIKAINASUN MAILA:** Kalitateko bikaintasun maila proposatzen dauen programa.

**IPINI KALITATE TURISTIKOAREN Q-a ESTABLEZIMENDUAN!**

**94 607 75 86  
94 404 74 70**

**www.turismoa.euskadi.net  
www.euskalit.net**

ERITZIA<sup>></sup>Gutunak  **Rodolfo Ares jaunari, Eusko Jaurlaritzako barne sailburuari**

Badira pare bat aste jakinarazi zeniguna Eusko Jaurlaritzak urtean 225 milioi euroko kopurua gastatzen duela ETAREN aurkako borrokan. Gastu hori Legebiltzarrean onartutako aurrekontuen lepotik izango dela suposatzen dut. Baina ez zenigun desglosea jakinarazi, zer partidatara destinatutako doan diru hori. Suposatzen dut, beraz, gastatutako milioiak berdin izan daitezkeela 200 zein 250.

Euskarazko argitalpeni begiraturik, euren partidak zertara destinatutako doazen, urtean zenbateko kopurua eskaintzen zaien eta sail ezberdinetatik nolako laguntza ofizialak hartzen dituzten ikusten baduzu, horien denen zerrenda xehatuak adibide ona dira ETAREN kontrako borrokan gastatzen dena ere zehazteko.

Egia da, beste zenbait atalen artean, mehatxupeko pertsonen babesa aipatu zenuela, baina ez zenuen zehaztu babesleak funtzionario publikoak ala enpresa pribatuetakoak diren. Horregatik, duda sortzen da Eusko Jaurlaritza enpresa pribatuak kontratatzen ari ote den, Legebiltzarren ezagutza eta onarpen gabe.

Ez zenigun jakinarazi Euskal Autonomia Erkidegoko Abiadura Handiko Trenaren obren babes izugarria zenbat kostatzen den, eta aipatutako kopuru horretan sarturik doan ala ez.

Zeure informatzeko gogoari jarraituz, jakinarazi behar zenigun ea presoan dispertsioak dakarren gastuaren kopuruak, senideek, lagunek eta euren laguntzarako elkarteek publiko egiten dituztenak, zuzenak ote diren. Ala, aitzitik, gutxiegi ez ote diren, hain lan humanitario eskerga burutzeko.

Kontuan izan behar zenuke arazo horrek lan mundurako sortzen duen desoreka ere; hain bidaia luzeak, ondorioz gastu ikaragarriak eta espetxealdia noiz arte luzatuko den ez dakiten etxekoan eta herritar askoren larritasunak oztopoak direla lanean kontzentratzeko eta, beraz, kaltegarriak ekonomia orokorrarentzat.

Kontuan hartu beharko zenuke presoak eta gaixoak bisitatzea batzuekarako karitatezko agindu erlijioso-ebanjelikoak dela ere, eta zuei esker terrorismoaren apologia bihurtu dela.

Informazioa izan nahiko genukeen auzi asko daude, dudak eta oker-ulertzeak gaituzteko. Informatu ahal gaituzu Jon Anzari zer gertatu zaion? Non da Jon? Horixe da gure galdera, bere senideek haren desagerpena salatu zutenetik. Komunikabiderik gehienek zabaltzen dituzten datuek ez dute ezelako argitasunik ematen.

Ares jauna! Ez zaitut ezagutzen, baina zure profila, Eusko Jaurlaritzako barne sailburu bezala, pertsona koldar eta mendekati batena da, gorrotoz eta erreminez betea, zeinaren ezjakintasuna bere edukazio txarrak bakarrik gaituzten duen. Neure ustea da. Agur bat.

Jose Mari Bilbao - Abadiño

**'Duatloia komunikabideetan' gutunari erantzuna**

Aurreko asteko Anboton agerturiko gutunari Mugarra triatloi taldeko zuzendaritzako kideei erantzutea dagokigula uste dugu, eta hona hemen gure iritzia:

Lehenik eta behin, eskerrik asko, Ander, Mugarra triatloi taldeak antolatzen duen Durangoko duatloi herrikoien 4.edizioan parte hartzearen, zuk eta parte hartu zuten beste 500dik gora parte-hartzaileek eman baitzenioten kolorea eta giroa frogari.

Bestetik, zurekin ados gaude esaten duzunean komunikabideetan beste oihartzun bat merezi zuela ekintza horrek, baina horretan agian beste batzuek dute zer esan handiagoa.

Hala ere, esaten dituzun zenbait gauza argitzea komeni dela uste dugu:

1. Udalaren webgunean ezer ez zetorrela diozu, eta larregi ez bada ere, jai egitarauaren barruan bazegoen gure ekintza.

2. Gure webgunean ([www.mugarratt.com](http://www.mugarratt.com)) afitxa besterik ez zenuela aurkitu diozu, eta kalitate baxuan zegoela, gainera. Horretan arrazoiak duzu, irailaren 18an jarritako afitxak ez du kalitate nahikoa, baina irailaren 27an jarritako artikuluan ibilbide guztien eta ordutegi guztien zehaztapena ematen da.

3. Sailkapenen berri eta oparitutako dorsalen berri ez dugula eman ere badiozu, eta hala da, baina duatloi honen izaera herrikoia ahalik eta ondoen mantentzeko asmoz ez dugu sailkapenik ateratzen; lehiaketa baino jai eguna izan dadila nahi dugu. Mugarra tria-

tloi taldeak udaberrian antolatzen duen eta Euskal Herriko zirkuituaren barruan dagoen duatloian parte hartzeko gonbita luzatzeko aprobeztatuko ditugu lerro hauek. Eta opariak bertan egon ezean batzerik ez dagoenez, inon argitaratzea alferrikakoa dela uste dugu.

4. Argazkirik inon aurkitu ez duzula diozu, eta orain arte eskuratu ditugun argazkiak urriaren 14ko datarekin argitaratu ditugu gure webgunean. Agian gehiago eta lehenago jarri behar genituen, baina aitzaki asko bururatzen zaizkigu, Sanfaustoak tartean, lana etab.

Besterik gabe, guztioi 2010 denboraldian Mugarra triatloi taldeko partaide izateko gonbitea luzatzen dizuegu.

Harremanetarako:  
kontaktua@mugarratt.com.

Mugarra triatloi taldeko zuzendaritza

**Nafarroako euskarazko hedabideok iritzi publikoari**

Nafarroako Gobernuak bigarren urtez blokeatu du euskarazko hedabideontzako diru-laguntzetarako gordeta zegoen partida. Euskarabideak uztailean agindutako 240.000 euroko diru-partida ezerezean gelditu da, Nafarroako Gobernuaren baitako Institutuak ez duelako deialdia garaiz argitaratu. Ez 240.000 eta ezta 9.567 ere, Euskarabideak egoera zuzendu ezean, Nafarroako gizartearen eskariari erantzunez euskarazko informazioa lantzen dugun hedabideok ez dugu euro bakar bat jasoko aurten. Nafarroako Gobernuak ez du bere betebeharra eta konpromisoa bete, eta horrela erantzun dio hedabideetako ordezkari ordezkarion urtebeteko ahalegina, lana eta elkarlanerako jarrerari.

Urtebete da Nafarroako euskara hutsezko hedabideok iritzi publikoaren aurrera atera behar izan zenuela, Nafarroako Gobernuaren erabakiek guran eragin zuten egoera larria salatzeko: Parlamentuak hala onartuta, euskaraz dihardugun hedabideoi zegokigun 310.000 euroko diru-poltsa 'blokeatu' egin zuen gobernuak, gutako askoren biziraupena kolokan jarritz.

Egoera haren aurrean, bi eskaera egin genizkion orduan Gobernuari: dirupoltsa haren blokeoa bertan behera uzteko, eta diru-laguntza politika duin eta egonkorra lortzeko hitzarmen bat lantzen hasteko. Eskaera biak betetzeko behar beste lan egiteko prest geundela ere esan genuen orduan eta, are gehiago, lanari ere ekin genion: hamaika bilera egin genituen gure artean balizko hitzarmen horren oinarriak lantzen hasteko. Nafarroako Parlamentuko alderdi guztiekin bildu ginen banan-banan, gure egoeraren eta eskaeraren berri zuzenean emateko; Parlamentuko Hezkuntza Batzordeari eta Euskararen Nafar Kontseiluari ere azaldu genien gure egoera zein den, eta lortu genuen Parlamentuak berariazko agindua ematea Gobernuari proposatzen genuen hitzarmenaren bidea lantzen hasteko.

Bien bitartean, inpresioa dugu Nafarroako Gobernuak, eta gure interlokutore zuzena izan den Euskarabidea, gurekin jolasten aritu direla denbora horretan guztian: legez geurea zen 310.000 euroko diru-partida hartatik, 240.000 euro 'desblokeatu' zituen 2008aren amaieran. 2009rako, berriz, 9.567 euroko aurrekontua onartu zuen xede horretarako.

Oraintsu arte Hezkuntza Kontseilaria izan den Carlos Perez Nievasek eta Euskarabideako zuzendariak, Xabier Azanzak, urte osoa eman dute esaten lasai egoteko, benetan banatuko zen kopurua hori baino gehiago izango zela. Uztailean egindako bilera batean, 240.000 euroko poltsa banatuko zuela esan zigun Azanzak, Euskarabideak bazuela diru-partida lortuta eta diru-laguntza deialdia irailean egingo zela.

Baina iraila iritsi da eta, hara non, egindako lan guztiaren ondoren, bileratan inbertituko lan eta denbora guztiaren ondoren, egoera duela urtebeteko berbera da: 2008ko krisiaren aitzakia berdindinarekin, uztailean agindu zitzaigun diru hura blokeatua dago berriz ere. Zergatik? Euskarabidea ez delako gai izan Gobernuak blokeoa berrituz zuela aurreikusteko, eta diru-laguntza deialdia hori gertatu aurretik argitaratzeko.

Urtebete pasa da, 365 egun, makina bat ordu bilerak egiten, pro-

posamenak lantzen, gure planteamenduak batari eta besteari azaltzen, xahutzeko ez ditugun indarrak honetan jartzen... zertarako eta duela urtebete egoera berdinean egoteko: ez daukagu hitzarmenik, ez eta aurtengo laguntzarik ere. Eta hori guztia gutxi balitz, orain ikusteko dago Gobernuan izandako aldaketek nola eragingo dioten gure egoerari.

Duela urtebete esan genuen, eta errepikatu behar dugu berriro ere: jasotzen ari garen tratamendua onartezina da. Egun batean gauza bat esan, hurrengoan horren kontrakoa egin... ezin dugu jarraitu uneko politikariari gogoak ematen dionari etengabe begira. Nafarroako euskaldunek eskatzen diguten euskarazko informazioa ematen jarraitu nahi dugu, eta Nafarroako administrazioak euskarazko hedabideak babesteko betebeharrak du. Parlamentuak ere eskatu dio laguntza horiek behingoz zehazteko.

Nafarroako euskarazko hedabideok ahal izan dugun guztia egin dugu herritarren eskariari erantzun eta Nafarroako Gobernuaren betebeharrak gauzatzeko hitzarmena lantze aldera, eta gauza bera eskatzen diogu Gobernuari, eta bereziki Euskarabideari: alegia, bere lana egin dezala, besterik ez.

Nafarroako euskarazko hedabideak eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa

## 'Urriena'-k lurretan

Urriaren 9ko Anbotoko portadan zetorren argazki handia ikusi eta "pisu handiko gizonak" pentsamendua etorri jatan burura. Bai, errespetua deutset. Herriko kulturaren alde behar asko egindako eta egiteko prest dagoen jentea da. Alkatea be ari da, bere lekutik. Eskerrik asko, denori. 'Hainbat belaunalditako dantzariak Urrienean' zinon lehenengo azpitoluan. Neuk be dantzan egingo nebala uste izan neban. Neu be belaunaldi bateko dantzaria nazenez, eta lurretakoa, eta lurretan dantzan egindakoa, neuk be dantzan egin beharko nebala uste izan neban. *Urrienean* dantzan egiteko kondizino guztiak betetan nituelakoan nago. Baina ez. Ezin egin ei dot dantzan *Urrienean*.

Aurtengo jaialdian 60 urtetik gora daukiezen dantzariak omenduko ditue zinon bigarrenak. Bueno, pentsatu neban, jantzan egiten ez deuste itziko, beharbada nesken talde denak eginez gero plazan ez ginakelako kabituko edo... baina hori bai, saria merezi dot eta 60 urte beteta daukadaz. Ezta! Hori ere ez! Eta Elkarregaz bazkaltzen joan be ez! Ez debalde, ez ordainduta! Holan da, Iketza?

Ezetzaren arrazoiak topatzea gatx egiten jat. 1989an ospatu ei zen lehenengo *Urriena*, eta ordurako ni eta beste hamarren bat neska mutilekaz batera dantzan genbiltzan plazetan, lurretako Mikel Deuna izenarekin, dozena bat urtean baino gehiagoan. Hainbat argazki daukadaz dinodana egiaztatze eta segurutik Iketzak eta Tiliñok be edukiko ditue, argazki batzen ibilitakoak direlako.

Bigarren orrian zetorren artikularen amaieran, *Urrienean* antolatze laguntzagaitik eskerrak emoten eutsezen Mikel Deuna dantza taldekoek Udalari, Gerediagari, Kofradiei eta Jai Batzordeari.

Hau gehiegi zan. Ezin neban sinestu. Zuek be bai? (Edo, geu be bai geure kontra?) Nik uste neban batzorde berezi batek antolatzen ebal. Noiztik erabaki dau Mikel Deuna dantza taldeak neskak ez direla dantzariak? Eta zer dira ba *Arku dantza* eta *Domingilloena*, dantzak ez badira? Eta nesken *Erregelak*? Eta soltekoak? Erantzun egidazu Abarkas, mesedez. Aprobetxatu gura dot Mikel Deuna dantza taldeari batzar bat eskatze, aspaldian ez dogu eduki eta, honetaz eta lokalari buruz eta transmisioari buruz... hitz egiteko. Polita izango litzateke batzarrerak dantzari zaharrak eta barriak deitzea, hurrengo baten elkarregaz bazkari bat egiteko hitzordua errazteko. Posible da, Jonba eta Larraitz?

Anton Mari, zuretzat be badaukat zerbait. Eskerrak emoten deusudaz emazte nazen aldetik, txalo beroak eskatzearen, baina dantzar be banazenez, pena hartu dot zu hain harro ikusita *Crónicas*-en, eskuetan daukazu liburuari eder eginez: *Iurretako Dantzariak 1891-2004*. Hor gu falta gara, androk, beraz, egia osoa ez da; eta gurata egiten denean, gainera, gezurra da. Bestela gezurtatu *Iurretako dantzak* deituriko bigarren CDak dakarrena: nesken dantzak doinu eta argazkitan.

Egia izango ete da, ba, talibanena, Marisa! Baina animatzeko motiboak be badaukaguz. Denok ikusi genduen San Migel egunean plazan, *Sokadantzara* mutil bi atara zitueela, neskak bakarrik ataratzeko ohitura zaharra hautsiz, berdintasunari aukerak emonez. Askok ez daukiezen potroak daukiezela erakutsi eben gazteek. Jakitun nago, baita, andrak bazkaltzera joateko aukera galerazteagaitik, zenbaitzuk bazkari ofizialari uko egin eutsiela. Biba zuek! Garaitarrek be aurpegia erakutsi ei dabe, eta 24an ospatuko ditue euren *Urrienean*, baina hori bai, neska-mutilak edo andra-gizonak elkarregaz. Inor baztertu barik.

Kristina Mardaras

## Kolaborazioa



Carlos Iglesias

## Patxikotxu eta Pantxika

Harritzekoa da komunikabideetan ezer ez kaleratu izana eta webguneren batean ezer ez aipatzea, baina lehengoan neure begiokin ikusi nuen ezinezkoa zirudien harreman baten baieztapena. Ez zegoen flashik, ezta kazetaririk ere, baina gertatutakoa egiazkoa da, eta ematen duenez bakea eta lasaitasuna ekarriko du herrira hurrengo urteetan.

Durangok bi pertsonaia ezagunen arteko adiskidetzeari behar zuen. Batetik tradizionalismoa irudikatzen duelako, eta bertan islatzen direlako hainbat belaunaldi, dituzten gustu edo ideologiak batera utzita. Bestetik abangoardiako eta aldarrikapenerako baloreak sinbolizatzen dituztelako. Biek durangarren sentipena erre-presentatzen dute, eta urtean behin eta kasualitatez jaietan egiten duten agerraldiak batzeko balio beharko luke; ez aldentzeko. Hainbat urteetan izandako ika-miken ostean, Patxikotxuren buruzkoak tartean, badirudi aurtengo giroa lasaiagoa izan dela eta ez dela eztabaidarik sortu. Nire ustez, gertaera hau arrakasta handia da, eta etorkizunera begira aurrerapauso handia.

Baina, benetan harritu ninduen jaietako azkeneko egunean etxera nindoala ikusi nuen izan zen. Gure bi pertsonaia maiteak besarkada luze batean elkartu ziren hiriguneko parke batean. Patxikotxuk eta Pantxikak bakeak egin zituzten denon izenean, inori ezer esan barik, naturaltasunez, eta erakutsi zidaten harremanak, harreman onak, oraindik posible direla oztopo guztien gainetik. 'Rollo' on honek datorren urtean ere jarrai dezala.

\*Erredakzioan itzulia

**Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta - astekaria@anboto.org**  
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN**  
**zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

**Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia**  
**helarazteko helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.  
**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
 diruz lagundutakoa



**anboto**  
 durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea  
 2009ko urriaren 16a - 8. urtea - 347 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana

Dominguez eta Kepa Aginako.





atzamar guztiak ere ez dira igualak\*  
**egin zaitez**

**berbalagun!**

**irefuerza tu euskara!**  
 euskaldunon arteko harreman sareak zabaltzeko egitasmoa



**zer da berbalagun?**

Astean behin lagunekin elkartzu eta gustuko ekintzak eginez, euskeraz berba egitea, horixe da **berbalagun**ek daukari helburua.

Lagun taldeak astean behin elkartzen dira, zaletasun, adin eta denbora librearen arabera eta talde bakoitzak erabakitzen du zer egin, noiz eta non.

**norentzat da?**

Euskeraz berba egin gura duen edozeinek parte hartu ahal du, euskara ikasle izan edo ez, hitz egiteko gogoa baina ez da behar. Euskeraz ondo berba egiten dutenentzako ere bada, trebatu gura duonarekin astean behin batuz laguntza ederra ematen delako. Eta den-dena **DOAN!**

Horretaz gain, hainbat ekintza ere antolatzen ditugu, zer egiten dugun ikusteko bisitatu gure bloga:  
[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)

**izena ematea**

berbalaguneri apuntatu edo informaziorik nahi baduzu:

**DURANGO:** AEEKo euskaltegian, Udal euskaltegian, Hizuntza Eskolan, Berbaron eta Euskara Sallan

**BERRIZ:** AERn eta Euskeraz Zerbitzuan

**ZALDI BAR:** AERn eta Euskeraz Zerbitzuan

**ELORRIO:** AEEKo euskaltegian eta Euskeraz Zerbitzuan

**ABADIÑO:** Azarolik aurrera, Matienako Errota eta Zelaletako Txerriportu kultur eremutan eta Euskeraz Zerbitzuan

**639 400 786**

[durangaldea@aek.org](mailto:durangaldea@aek.org)

[www.durangaldea.blogspot.com](http://www.durangaldea.blogspot.com)

\* [www.praktikatu.blogspot.com](http://www.praktikatu.blogspot.com)

Aranzatzelak:



Partekatzaileak:



# KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

## Joko ona, emaitza eskasa

Sailkapenean behe samarrenean kokatuta dagoen arren, ezin daiteke esan Kulturala oro har itxura txarra eskaintzen dabilenik. Axier Intxaurragak argi utzi zuen, liga hasi aurretik, bere taldea aurkariaren bila irtengo zela beti, etxean zein kanpoan jokatu. Horrela planteatu ditu partiduak orain arte. Ausardia ondo neurtu dute jokalariek, eta hainbat partidu itxuroso jokatu dituzte.

Baina sailkapenari begiratu gero, ez da joera on hori ageri. Zergatik? Opari lartxo egin dituztelako: "Behin baino gehiagotan gertatu zaigu partidu osoan aurkaria baino hobeto jokatu, eta 10 minutu txarregatik galtzea. Erregalu gehiegi egin dugu", uste du Intxaurraga entrenatzaileak. Joan zen astean Portugaleten horixe gertatu

zitzaien. Bigarren zatiko lehen ordulaurdenean Portugaletek gol bi sartu zituen, eta Kulturalak partiduaren hondarrea lortu zuen lehia osoan etengabe bilatutako berdinketa: "Partidua zelan joan zen kontuan hartuta emaitza ona da, baina irabaztea merezi genuen".

Bihar Amurriok bisitatuko du Tabira. Intxaurraga seguru dago "play-offerako borrokan" ibiliko direla, "esperientzia handiko jokalariek dituztelako". Beraz, hauei "ezin dakieke oparirik egin, ez aurrean ez atzean". Gainerakoan, ez du orain arteko bidea aldatzeko beharrik ikusten: "Sailkapenak ez du islatzen zelaian erakutsi duguna. Sentzazioak onak dira, eta gustura nago taldearen jokoagaz". Jokoa nahiko konstantea bada, etxean

zein kanpoan jokatu, ezin daiteke beste hainbeste esan emaitzei buruz. Tabiran oraindik ez dute partidurik galdu —garaipen bi eta hiru berdinketa—, baina kanpoan berdinketa bi bakarrik lortu dituzte.

Aurten, orain arte, Kulturala zorte ona izaten ari da lesioekin, eta biharko talde ia osoa jokatzeke moduan egongo da. Lander Bereziartua da salbuespena; zaintiratua du eta ez da astebururako errekeratuko. ■ J.D.

**A.Intxaurraga:**  
"Jokoa ona da, baina opari lar egiten gabiltza"


### 24 Superligan ari den durangarra

Deya Nuñezek Eibar taldean jokatzen du aurten; emakumeen futboleko maila gorenean, beraz. Mailen arteko saltoa asko igarri du, baina apurka neurria hartu diola dio

### 25 Taldea mahaian, bakarrik aulkian

Bizkaiko Banakako Xake Txapelketari ekingo diote bihar. Taldekako liga hasi aurretik, xakelariak euren dohaiak baino ez dituzte mahai gaineko gudarostea zuzentzeko

# “Jokalari legez asko hazi nazela sentitzen dot”



lurretako futbol taldean zazpi denboraldi egin ditu Deya Nuñez durangarrak. J.D.

Deya Nuñez (Durango, 22 urte) emakumeen Superligan jokatzen dabil, Eibar taldeagaz. Urtebeterako kontratua dauka. lurretakon emondako zazpi urteekin alderatuta, guztiz esperientzia barria eta aberasgarria dela dino. Hasieran asko kostatu jakola onartzen dau; orain gustura dabil, ilusino handiz.

## Zelan sortu jatzun Eibarren jokatzeak aukera?

Azkeneko hiru urteetan deitu izan deuste Eibarrera batzeko, eta beti ezetz esan izan deutset. Aurten be, hasieran ezetz erantzun neutsen, baina gero proposamena onartu egin behar nebala erabaki neban.

## Zerk aldatuarazi eutsun eritzia?

Futboleko jokatzeak gogoak. lurretan azkeneko bi-hiru urtean ahul samar genbilzen, eta aurre-pausu bat emoteko aukera ona zela eritzi neutsan.

## Pausu handia da. Goreneko mailan jokatzen dozu.

Hasieran nik ez nekien hori. Proposamena onartzen nebala esateko deitu neutsenean nazional mailan zegozela uste neban. Orduantxe azaldu eusten Superligan jokatzeak proiektu bat zeukiela.

## Zelan aldatu deustu bizitza Superligan jokatzeak?

Oraintxe bertan futbolak nire denpora gehiena hartzen dau.

“Oraintxe bertan futbolak nire denpora gehiena hartzen dau”

Astelehena kenduta, egunero entrenatzen dogu. Bestalde, futbolari legez hazten nabilela sentitzen dot. Asko ikasten nabil.

## Jokoari jagokonez, zertan igarri dozu alderik nabarmenena?

Alderdi fisikoan eta erritmoan, zalantza barik. Erregional maila eta Superliga mundu bi dira, ez daukie zerikusirik. Hasi nintzen ezin neban erritmo hori segitu.

“Argazkietan ikusi ohi nituen jokalarien kontra jokatzen nabil orain”

## “Non sartu naz ni?” galdetuko zeuntsan zeure buruari.

Hasieran kezkatuta eta larrituta egon nintzen. Entrenamenduetan ez nintzen erritmoari eusteko kapaz, partidua ofiziale-tan zelan konponduko nintzen duda handiak neukazen.

## Eta orain, zelan zagoz?

Oso ondo. Holako erritmoan entrenatuta ia gura barik be hobetzen da alderdi fisiko, eta aldea igartzen dot. Ingurukoek be asko lagundu deuste. Neure buruagaz be gogoeta egin neban, gainera: “Hemen banago

zeozergaitik da, beraz aurrera!”, animatu neban neure burua.

## Segurutzik ekonomikoki ez zenuen holako aldaketa sakonik igarriko.

Igartzen da, baina ez hainbeste. Eibar Superligako talderik xumeenetakoa da. Besteek adina lan egiten dogu, baina gitxiago kobratu. Halan be, ilusino eta gogo itzelagaz gabilz.

## Bizipenak eta esperientzia be badira zelanbaiteko saria.

Duda barik. Lehengo batean Athleticen emakumeen taldeko argazki bat ikusi neban; hantxe zegoen Iraia eta Eva Ferreira, besteak beste. Orain euren kontra jokatzen nabil. Hori ikaragarria da niretzako, benetan sentzazino polita. Zaragozaren kontrako partiduan be, Portugalgo selekzioagaz dabilzen hiru jokalariren eta Argentinakoagaz dabilen beste baten kontra jokatuta neban.

## Sei partidutik lau galdu dozue, baina talde eta proiektu barria dela kontuan hartuta, ez da hain harrizkoa.

Oro har, emaitzekin eta gure errendimenduagaz oso gustura gagoz. Zaragoza oso talde indartsua da, eta lau gol bakarrik sartu euskuezen. Gainera, asko kostatu jaken gure atera heltzea. Aurre-denboraldian Athleticen kontra 1-4 galdu arren, geu hasi ginen aurretik.

Mikel Bilbao  
• Radio Euskadiko kazetaria



## Kontraesanak

Amaitu barri den Zestako Mundialak ondorio positiboak itzi deuskuz, bai kirol arloan bai antolaketari jagokonez. Gainera, Durangon txapelketako partidurik onena jokatuta eben hilaren 12an.

Foronda-López eta Olha-Iratorza bikoteek azken urteetako lehiarik onenenetakoa jokatuta eben. Eritzi horretan bat gatoz pilotalekuan batu ginen zaleok. Lehiak denetarik eduki eban: kalitatea, emozinoa, jokaldi dotoreak... Azken aspaldian sarritan erabiltzen den berba erabiliz, esan daikugu lau puntistak ‘galaktikoak’ izan zirela. Txapelketa goi mailakoa izan da; besteak beste, igazko dibortzioaren ondoren, enpresa handi biak (Master Jai eta Jai Alive) eskutik joan direlako be.

Halan be, titularrean aipatu dodan kontraesana Euskal Telebistako emankizunetan partiduek izan daben audientzia pobrea da. Sei mila lagun eskasek jarraitu eben urriaren 12koa, eta zaleen laguntasuna berreskuratzeko pizgarrien beharra sumatzen da. Partiduak laburtzea izan daiteke irtenbideetako bat, 35erakoak luzeegi suertatu daitezkezelako dinamismo handiagora ohitutako ikusleentzat. Tantorik tantorako tarte hilak eragozteko edo sakean ‘pasa’ falta legez hartzea izan daitezke beste batzuk.

Bestalde, Mundialak ez dau eskualdeko ordezkariarik eduki, baina albiste ona heldu jaku txapelketa amaitu barritan: Adolfo Elizegi Master Jaiko programazinoetara bueltatu da. Azkenik, torneo prestigio-tsu bi aitatuko ditut. Edukiko dogu Baqué eta Olazar txapelketei buruz berba egiteko modua. Oraingo, agur bero bat txapelketak posible egiten ditueen denei.

\*Erredakzioan itzulia

## Bazeunkien partidua gol asko-gaitik galtzeko beldurrik?

Ez. Zuzendaritza, entrenatzailea eta jokalaria, denak bat gara eta erlazino ona daukagu. Bagenkien proiektu barriko parte ginela, eta talde indartsuen kontra jokatuko genduela. Alde horretatik lasai gengozen.

## Partidu bat irabazi dozue. Zelan bizi izan zenuen garaipen hori?

Liga hasieran izan zen, eta oraindino ez neukan fitxarik. Harmailetatik ikusi neban partidua. Poz handia hartu neban, eta partidua amaieran jokalaria zorientzera joan nintzen.

## Azaroko lehenengo asteburuan Athleticen Unbe bisitatuko dau.

Luis Orma entrenatzaileak (durangarra da) oso ondo prestatzen ditu partidua, eta bere

aginduak zuzen betetzeko kapaz bagara lanak emongo deutseguz.

## Talde titularrean jokatzen dozu normalean?

Hasikerako partiduetan ez neukan fitxarik eta ez neban jokatuta. Harrezko bi-hiru partidutan titular izan naz, eta entrenatzaileak nigaz kontaktzen dauela jakitea pozgarria da. ■ J.D.

“Hasieran ezin neutsan erritmoari eutsi, eta kezkatuta ibili nintzen”



Orain arte gol bat sartu dau ligan, Lagunaken kontra.



# Elorrion erabakiko da Banakako Xake Txapelketa hainbat mailatan

Abadiñori lekukoa hartu dio Elorriok aurten; hiru mailetako lehiak bertan jokatu dituzte



Azkeneko urteetan Abadiñon jokatu izan dira banakako lehiak. Judit Fernandez

Bizkaiko Banakako Xake Txapelketari hasiera emango diote bihar. Azaroa amaitu arteko sei jardunaldietan, lau mailetan lehiatuko dira. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetako partiduak zonalde bitan banatu dituzte: Bilbo inguruan –Guru-

**Zaldi Baltzako 134 xakelari neurtuko dira lehiari bihar hasiko den banakako txapelketan**

tzetan eta La Peñan— eta Elorrioko kirol etxean. Elorriok lekukoa hartu dio Abadiñori: "Aurten Zaldi Baltzako ordezkari zabalak parte hartuko du txapelketan, eta partiduak Elorriora ekartzera animatu gara", azaldu du Aitor Arabiotorre Zaldi Baltza

xake taldeko kideak. Izan ere, Elorrioko taldeak 13 xakelari izango ditu lehiari; bost lehenengo eta hirugarren mailan, eta hiru bigarrenen. Durangoko Larrasoloeta taldetik 10 xakelarik parte hartuko dute; hiruk lehen mailan, seik bigarrenen eta batek hirugarrenean. Gorenean ez dute ordezkariarik. Partiduak 16:00etan hasiko dira.

**Prieto, gorengo mailan**  
Abadiño xake taldetik jokalaria bakarria animatu da: Alain Prieto. Abadiñarra goren mailan lehiatuko da. Maila horretatik irtengo da aurtengo Bizkaiko txapeldu-na. Prieto ez da faborito nagusia, baina irabazteko aukerak dituztenen zerrendan sartu daiteke: "Badaude bost-sei jokalaria besteen gaintetik nabarmendu

Alain Prieto abadiñarra dugu ordezkari bakarria goren mailan, eta faboritoen artean dago

daitezkeenak, eta Alain multzo horretan dago", agertu digu Ibon Martin Abadiño xake taldeko kideak. Hainbat arrazoi medio, Abadiñok aspaldiko ordezkari gutxien izango du aurten banakako txapelketan. Esaterako, leray Galtzagorrik ere parte ez hartzea erabaki du. ■ J.D.

## Iurretako-Elorrio derbia, goiko postuen lehiari

Iurretakok eta Elorriok derbi interesgarria jokatu dute asteburuan. Talde biak liga hasiera oso ona osatzen dabilta eta goiko postuetan daude.

Iurretakok Larakozelain jokatu dute lehia biak irabazi ditu. Kanpoan ere uzta dotorea batu du: garaipen bi eta berdinketa bat. Gaur egun, bigarren dago, Urdulizengandik puntu bira. Aipagarria da iurretarren defentsa lana: gol bakarria jaso dute orain arte.

Elorrioren datuak ere oso onak dira. Eleizalde gotorleku bihurtzen ari dira, eta han jokatu dute hiru norgehiagokak irabazi dituzte. Kanpoan puntu bat urratu dute partidu bitan. Erasoan duten ahalmena nabarmena da: 11 gol bost partidutan. ■ J.D.

Orain arteko mailari eusten badiote, derbi ikusgarria jokatu dezakete talde biek

## Tabirako lidertzen bila kantxaratuko da

Emakumeetan Tabirakok gaur jokatu du Gernikaren kontra bere sasoiaren atzeratutako partidua. Durangarrek orain arteko hiru partiduak irabazi dituzte, eta gaur beste hainbeste eginez gero, lidertza partekatuko lukete Ardoi eta Deusto-Loiola taldeekin.

Azpimarratzekoa da joan zen astean Donostian lortutako garaipena. Bera Bera hirutik hiru irabazita zegoen, baina Tabirakok erreposo latza eman zien (59-86).

Gizonetan eta erregionalean Julza-Zalduak ere ez du porrotik ezagutzen. Orain arteko hiru lehiak irabazi dituzte nahiz eta joan zen astean asko sufritu zuten Barrena Berri menderatzeko: 71-70. ■ J.D.

Irabaziz gero, Ardoi eta Deusto Loiolagaz lehenengo postua partekatuko luke

## Durangaldeko maratoi erdia Urkiolan zehar

XIX. Durangaldeko maratoi erdia antolatu du domekan Bidezabal atletismo taldeak. Lasterketa 10:00etan abiatuko dute Urkiolako Santutegitik. Lasterketa osoa egin gura dutenak Otxandio eta Oletan ibiliko dira, berriro Urkiolara bueltatu aurretik. Nahi duena-

rentzako 11 kilometroko beste ibilbide laburrago bat ere prestatu dute. Izen-ematea lasterketa egunean bertan egin daiteke (12 euro).

Gizonetan eta emakumeetan irabazleak 300 euro jasoko ditu; bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 90 euro. ■ J.D.

## Agenda

<b>FUTBOLA</b>
<b>HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Kulturala - Amurrio</b> Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
<b>LEHEN ERREGIONALA</b>
<b>Iurretako - Elorrio</b> Domekan, 17:00etan, Larakozelain
<b>Zaldua - Atxulaur</b> Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian
<b>BIGARREN ERREGIONALA</b>
<b>Abadiño - Basauri</b> Zapatuan, 16:45ean, Astolan
<b>HIRUGARREN ERREGIONALA</b>
<b>Berriz B - Extremeño</b> Domekan, 11:30ean, Berrizburun
<b>Elorrio B - Artibal B</b> Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden
<b>ARETO FUTBOLA NAZIONAL A MAILA</b>
<b>Sasikoa - Lauburu</b> Zapatuan, 19:15ean, Landako kiroldegian
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Kurutziaga - Iralabarri</b> Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian
<b>LEHEN ERREGIONALA</b>
<b>Elorrioko B - Hegalariak</b> Zapatuan, 17:45ean, Elorrioko kiroldegian
<b>Abadiño Lagun - Colegio Vizcaya</b> Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun
<b>BIGARREN ERREGIONALA</b>
<b>Kurutziaga B - Zerbezotxo</b> Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian
<b>SASKIBALOIA</b>
<b>LEHENENGO MAILA (gizonak)</b>
<b>Tabirako - Seky.es</b> Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian
<b>LEHENENGO MAILA (emakumeak)</b>
<b>Tabirako - Gernika</b> Barikuan, 20:00etan, Landako kiroldegian
<b>LEHEN ERREGIONALA (gizonak)</b>
<b>Tabirako - Sopelana</b> Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian
<b>Anbotopeko - Romoko Ezkorak</b> Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
<b>LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)</b>
<b>Tabirako - Txurdinaga</b> Domekan, 10:00etan, Landako kiroldegian

### SAILKAPENAK >>

#### Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak


1- Real Sociedad B...23	15- Laudio.....10
2- Amorebieta.....19	16- Portugalete.....10
3- Zalla.....19	17- Retuerto.....8
4- Gernika.....18	18- Lagun Onak.....7
5- Beasain.....18	19- Eibar B.....7
6- Baskonia.....16	20- Salvatierra.....6
7- Amurrio.....15	
8- Aretxabaleta.....15	
9- Zamudio.....14	
10- Arenas.....14	
11- Elgoibar.....14	
12- Leioa.....12	
13- Santurtzi.....12	
14- Kulturala.....11	

#### Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Baskonia Fund.....3 (+56)
2- Bidegintza.....2 (+17)
3- Seky.es.....2 (+9)
4- Easo.....2 (+3)
5- Zornotza.....1 (+2)
6- Legarzia.....1 (+2)
7- Padura.....1 (-9)
8- Tabirako.....1 (-16)
9- San Ignacio.....1 (-21)
10- Bide Bide.....1 (-43)

#### Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Ardoi.....4 (+128)
2- Deusto Loiola.....4 (+72)
3- Cafés Aitona.....3 (+44)
4- Bera Bera.....3 (+26)
5- Obenasa.....3 (+18)
6- Las Gaunas.....3 (+13)
7- Elexalde.....3 (+4)
8- Tabirako*.....3 (+56)
9- Gernika*.....2 (+48)
10- Abaroa.....1 (-36)
11- Arabako EHU 1.....(-42)
12- Getxo.....1 (-74)
13- Atletico SN.....0 (-48)
14- Irlandesas.....0 (-53)
15- Artieda.....0 (-62)
16- San Ignacio.....0 (-94)



Kulturalak 12 gol sartu eta 13 jaso ditu.  
\* Gaur jokatu dute atzeratutako lehia.

# EDERTASUN GIDA

## Ileapaindegiak



**NUKLEO**  
ileapaindegia

myspace.com/pelúkerianukleo  
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Amaia Salazar
- Nukleo ileapaindegia dauka Elorrión

## Ilea distiratsu kaltetu barik

Amoniako bako 'Fantasia' tindagaiak erabiltzen dozuez. Zer dira tindagai berezi horreek?

Tindagai horreek ez daukie amoniakorik, ezta ur oxigenaturik be. Beraz, erabiltzean ez dago erreakzino kimikorik; fisikoa dela esan leiteke. Distira asko emoten dabe, eta oso sua-beak dira. Ilearen egitura be ez dabe kaltetzen, eta koloreak ez dira hain kanpora ateratzen. Gainera, ilea kaltetu eta zigortu beharrean zaindu eta hobetu egiten dabe.

Eta zer abantaila daukie bestee-kin konparatuz?

Orokorrean, ez direla kaltegarriak ilearentzako, eta, horretaz aparte, kolorea luzarago mantentzen dela. Kolorearen intentsitatean be igartzen da aldea, bestee-kin konparatuta.

Ile mota guztietarako balio dau metodo horrek?

Bai: ez daukaner erreakzino kimikorik, berdin zelako ilea eduki. Estropeatuta dagoen ilean be, onerako eragina dauka. Alergiarik be ez dau sortzen.

Zer harrera izan dau jentearen aldetik?

Jenteak oraindino ez dau eza-gutzen, eta horregaitik, ileapaindegira datozenei azalpena emoten deutsegu. Baina behin eskainita, aproba egiten dauen jentea gustura geratzen da, eta bueltatu egiten da.



**Pilar Ruiz**  
• ileapaindegia •

SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96



**Mª JESUS LUQUE**  
• ileapaindegi unixesa •

**Kurutziaga**  
**9 behea**  
94 681 43 89  
48200 Durango

## Estetika Zentroak



Parafarmazia Dietetika

**Amara**

- Drenatze linfatikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- MANIKURA • PEDIKURA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarrago, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



**Virginia Ansorena**  
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekalnen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterrondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ªA-1ªC, 48200 Durango  
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



**Ana Camarero**  
• apaindegia •

LASER • FOTODEPILAZIO • MEDIKU-ESTETIKOA

**25. urteurrena**

**HILERO**  
• Aurpegi tratamendua  
• Gorpuzko tratamendua  
• Hainbat produktutako sorta

**ZOZKETA**  
• Aurpegi garbiketa  
• Argizari berroz depilazioa  
• Argizari epeluz depilazioa  
• Depilazio elektrikoa  
• Gorpuzko tratamendua  
• Solariuma  
• Mesoterapia birtuala

Golenkate 16-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

# IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...  
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



## ESKAINTZAK

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia la zerbitzari bez umeeekin...

## ERRENTAN EMAN

Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barrizatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

## SALDU

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD 127 zaldi. 24. euro...

## HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingeles beste irakasg batzuk)...

## BEREZIAK

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30 aurrera...

## OPARI

Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma oparitzen dut. Arra da. Oso polita. ...

e-mail: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)  
Tel.: 94 681 65 58









### Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio  
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.  
Pintxoak. Eguneko menua.  
Menu bereziak. Kartan, aukerako  
okelak txingarretan.



### Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta  
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak  
jantokian: asteartetik igandera.  
Afariak jantokian: ostegunetik  
larunbatera. Razioak terrazan.



### Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz  
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.  
Karta.  
Domeka, astelehen eta  
martitzen gauetan itxita.



### Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a  
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik  
zapatura.  
Taldeentzako menu adostuak.  
Askariak.

# Jatetxe gida



### Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio  
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.  
Eguneko menua.  
Asteburuetan menu berezia.



### Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio  
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.  
Astelehen eta astearte gauetz itxita.  
Astelehenetik ostiralera eguneko  
menua 11€



### Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria  
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik  
ostiralera. Asteburuetan bazkariak  
eta afariak enkarguz.  
Especialitatea: Txuleta errea.

Hemen agertu  
gura  
badozu,

## DEITU

**94 621 79 02**

